

Andrazkoen Arratia A taldeak 4-0 irabazi dau igoera promozinoko lehenengo partidua

Arratiako andrazkoen Arratia A taldeak, apirilaren 26an etxean Real Sociedad C taldea irabazita, liga txapeldun izatea lortu eban, eta oin 2. RFEF Mailara igoteko promozinoa jokatuten dabil. Lehen partidua Urbietan jokatu eban, Pradejon talde errioxarraren kontra, eta emaitza sano ona lortu eban 4 eta 0 irabazita. Bestalde, Gazteen Mailako gizonezkoen Arratia Ak igotea lortu dau. **15. orrialdea**



Garazi Navas, Arratiako Koruko zuzendariari alkarrizketea

Arratiako Koruak 75 urte bete ditu aurten eta ospatuteko, Agate Deuna eta aldaerak diskoa grabau eta kontzertua eskaini eben martian Areatzan, 250 pertsonaren aurrean eta txalo zaparraden artean, "eleizea hankaz gora" ipinita. Kontzertu eta diskoaz berba egiteko atxakiagaz, koruaren osasunaz, lehenaz eta geroaz be berba egiteko aukerea izan dogu Garazi Navas zuzendariagaz. **11., 12. eta 13. orrialdeak**



ARRATIA

Biherko Arratia Plan Estrategikoa

Errota Fundazioak, udalek, alderdi politikoez, enpresariak, hezkuntza zentroek eta Gorbeialdek ingurumen, ekonomia eta gizarte aldatetek ekarritako erronkei modu bateratuan aurre egiteko Plan Estrategikoa landu dabe. Misino moduan arratiarrek Arratian lan egitea zehaztuta, honetan lagunduteko bost proiektu ipini ditue martxan. **9. orrialdea**

ZEANURI

Sanisidro jaiak maiatzaren 15 eta 16an ospatuko dira

Behi barik bada be, Abere, Artisau eta Nekazal produktuen Azokeak beste urte batez hartuko dau Zeanuri. Horrezaz gainera, baserriko lanak ezetuarazoteko erakustaldiak, musika eta jantza emonaldiak eta zesta-punta partiduak egongo dira astegoiena girotuteko. **5. orrialdea**

ARRATIA

Arratiako lehen sektoreari bultzadea

Igitiek ekoizle, alkarte, instituzino, enpresa eta konsumitzaileak deitu ebazan batzarrera apirilaren 16an. Beste eskualde batzutatoko ekoizpen eta elikadura ereduak ezetu eta bertokoa eragiteko asmoagaz. Ortulaguntza zerbitzua ipini gura dabe martxan, gero epe luzeko apustu sendoagoak planteetako. **5. orrialdea**



GORBEIALDE
LANDA GARAPENA

ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN



LAN PUBLIKOAK
UR ETA SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK

94 631 72 57
ekin@ekinsl.eus

Igorre (Bizkaia)



Literatura txokoa

EL BUS DE LA ENERGÍA

Gaur dakardan liburua ez da barria, ez da nobedade literario bat. Baina bene-benetan edozeinentzat baliagarria izan ahal dalako dakart txoko honetara. Gainera, batzutan urteak aurrera arinegi doazen eretxia daukat eta noizean behin denporan geldialdi bat egitea nor garan eta zertan gabizan hausnartuteko ez da kalterako izaten. Lasai jesarri irakurle, eta prisa barik irakurri, ia gustuko daukazun dakardan informazio hau.

Liburu honetan idazleak 10 arau aurkeztuten deuskuz, bai behar arloan, bai arlo pertsonalean energia positiboagaz aurrera egiteko.

Uste dot danok konziente gara-la zenbat eragiten dauan persona

baten energiak ingurukoengan. Seguru nago inoz igarri dozula postibidadeagaz beteta bizi dan baten baten eragina zuzan, eta zer esanik ez, kontrako kasuan be bai. Bihotzaren eremu elektromagnetikoari esker pasetan da hau, izan be eremu hori oso potentea da.

Ba halanda guztiz be, energia garala ahaztu egiten jakula emoten dau askotan. Umore petralean edo erdi amatauta joaten gara lantokira. Familiagaz be bardin jokaturen dogu. Egin daigun probatxo bat: gorputzean zelan eta non igarten dozu hurrengo esaldi hau irakurtekeran? (irakurri pare bat bider lehenengoan ez badozu ezer igarten):

Zuk ebatzi ahal dozu une oro

ze energia motagaz segidu gura dozun zure eguna eta ebatzi horrek gidatuko dau zure egun eta bizitza.

...

Bai ezta? Seguru zeozer igarri dozula.

Beste aitamen baten inoz esan dodan moduan, dana da energia kontua uniberso honetan, eta energia horrek egingo dau errotea izango bazan moduan, ura mobiduarazo edo... ur hori presa bihurtu.

Baina bueno, liburuko ia 200 orrialdeak ez dira energia positiboari buruzkoak bakarrik. Labur geldituko nintzateke horregaz geldituko banintz.

Hasieran esan dodan moduan, 10 arau (nik gurago dot pista ber-

bea erabili arau baino) ezetuko dauz irakurleak, bizitza dan bidai haur askoz gehiago gozatuteko.


Seguru nago, 10 idea honeek gure egunerokotasunean aplikau ezker, gure errealidadeak beste kolore bat hartuko dauala, oindino ez bada ustrukuaren koloreetakoa.

Eta guzti hau, umorez kontautako istorio dibertigarri baten atzean gozotuta. Bizitzako arlo guztiak autobus bidaiak diralako eta zu zeu, irakurle, bai, zu zeu, gidari. Zure esku dago zelan gidatu gura dozun zure autobusa.

Nire gaurko aholkua, hartu gura dauanarentzat: emon aukerea liburu honeri, holan aukera hori zure bizitza barriari emoten egongo zara-ta.

Izan zoriontsu eta kontagiua ingurukoak zure energia horregaz. Egin daigun mundu hau leku ederrago bat.

Nerea Goioaga



Jon Gordon

El bus de la energía

Empresa activa argitaletxea, 2011

188 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Maiatzaren 4tik 10era

Traver Ibañez. Bedia. JA. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 646 830 571

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano (2-8). Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 11tik 17ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya (9-15). Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 18tik 24ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Melero (16-22). Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardianik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Cometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Tel.: 94 449 05 87

Medikuak

Arantzazu, Artea, Areatza, Dima,

Igorre eta Zeanuri: 94 600 74 63

Bedia eta Lemoa: 94 600 68 85

Ubide: 945 45 50 17

Zeberio: 94 500 67 95

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17

mankomunitatea@arratia.eus

Gorbeialde Landa

Garapenerako Elkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Gertu bulegoa Igorre 94 406 80 00

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51

kulturetxea@igorre.net

Lemoako Kotxepin Kultur Etxea

kotxepin@lemoa.eus

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa 688 854 543

info@errota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era orduo. Jaiegunetan orduo 07:15etik

22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduo: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik

21:45era orduo.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara

orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era

orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduo.

Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduo.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-

Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduo.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara

orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduo.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduo.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-

Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandio: 06:45etik 20:45era orduo. Ubidera:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik

20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik

20:45era bi ordurik behin.

*08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran

zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduo.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduo.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara

orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta

08:15etik 21:15era orduo. Zapatu eta jaiegunetan

ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

07:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*, 14:10, 15:00,

16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan:

07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30,

16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan:

07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

A3712 linea. Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: 06:45ean urteten dau Bilbotik.

Zapatuetan: 08:45ean urteten dau. Domeka eta

jaiegunetan: 10:30ean urteten dau.

A3712 linea. Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: 15:15ean urteten dau Gasteizetik.

Zapatuetan: 16:30ean urteten dau. Domeka eta

jaiegunetan: 16:30ean urteten dau.

Eskualdeko garraioa. Erreserbak

945 18 20 60

6A linea. Otxandio-Legutio

Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean,

09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean

eta 20:25ean. Astegoien eta jaiegunetan:

08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an.

6A linea. Legutio-Otxandio

Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean,

14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta

21:15ean. Astegoien eta jaiegunetan: 10:35ean,

13:40an, 18:25ean eta 21:30ean.

Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarrizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Ager Barragan. **Webgunearen arduraduna:** Ager Barragan. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Maketazinoa:** Iñigo Iruarrizaga. **Banaketea:** Araitx Zapiko (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Xabier Gorostiaga (Arantzazu, Areatza eta Artea) Alejandro Konadio (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria, **Instagram:** @begitu.eus, **Mastodon:** @begitu, **X:** @BegituEus **YouTube:** @BegituAldizkaria



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuz.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Arteako Udala zer dabil itxaroten?

2020tik, La Gilda del Norte enpresearen inguruko albiste kezkarriak lehen aldiz argitaratu ziranetik, enpresek normaltasunez lan egiten eta azoka askotan parte hartzean jarraitu dau, Artean egindakoak barne, atzena urte honetako apirilaren 19an, behin kondenauta egonda.

Oin dala sei urte, herritar batzuk, momentu eta modu desbardinetan, gure kezka eta kezka adierazo geuntzean, bai Arteako Udalarri bai Gorbeialderi. Egoera zaurgarrian egozan langileak, lan baldintza eskas-tan eta mehatxuz mantentzen ebezan esplotazio egoera nabarmenean, enpresearen etekin ekonomikoa handitzeko. Horreetako momentu bat izan zan epaiketea ate-joka egoanean eta fiskalak delituak frogatutzat emon ebazanean. Mozino baten bitartez eskatzen genduan La Gilda del Norte azoketara ez konbidetea. Mozinoak ez eban egin aurrera, EAJK bozkatu ebako kontra. Emon eben argu-

dioa izan zan, errubakotasun-presuntzinoa mantentidu behar zala.

2026ko apirlean La Gilda del Norte 18.000 euro ordaintzera kondenatua izan zan. Egoera irregularrean dagozan langileak "behin eta barriz" enplegeteagaitik. Epaiak jasoten dauanez, ikuskatze kasuetan ostendu egin behar zirala ohartarazoten eutseen jaubeak. Gainera, epaiak jaso dau: "Egiaztatzen da akusauak, sarritan edo behin eta barriz, Espainian egoera irregularrean egozan herritar-rrak lan baimen barik okupatzen ebazala. Hori dala-ta, eta langileek bizirauteko beharra ebela-ta, eskaintzen eutsiezan lan-baldintzak onartzera behar-tuta egozan, lurralde nazionale-tik kanporatuak izateko mehatxuagaitik ahultasun-egoeran egozala aprobetxauz".

Egoera hau izanda, eta Arteako Udala jakitun egonda, La Gilda del Norte herriko plazan saltzean egon zan. Lotsagarria irudintzen jaku espazio publikoa langile prekarioen eskubideen kontra egiteagaitik kondenau dan enpresa bateri ixtea.

Noz arte holan? Noz arte ez dozuez herritarren kezka eta kezka entzungo?

PILI ÁLVAREZ MOLÉS

ERETXIA

"Alkarregaz ikasiaz, herri proiektu barriak etorriko dira"

Zer jango dugu bihar?

Eskerrak emon gura deutsueguz hurbildu zineen guztioi, ekoizleei, ordezkari instituzionalei, alkar-teetako kideei eta motibazio propioz etorri zinanei.

BIOLUR alkarteko Leireri eta ELIKAENEA alkarteko Ainhoari, eskerrik asko, artikulua honen izenburua zuena dalako.

Igitie Arratiako Baserritar Agroekologikoen Elkartek topaketa honetan aspalditik kezkatzen gaituan zeozer partekatu gura genduan: zelango Arratia gura dogun, zelan gura dogun bizi, eta batez be, ze elikadura sistema gura dogun. Izan be, maila globalean aztertu ezker, eragiteko aukera gitxiago daukagu, aldiz, bada-kigu tokiko mailan asko daukagu egiteko, aukera handiak dagozala, eta hori da aztertu zana. Emonkorra izan zan eta bihozaren taupadaren eritmo bizian ipini deusku.

Hasteko, erreflexino moduan, elikagaien hornidura-sistemea eta/edo elikagaien kalidadea arriskuan ipini daikean egungo egoerearen laburpen bat:

- Egungo gerra-esparru globalizatuan, erregaien arazoak edo prezioen igokera eragin daikean ondorioek, elikagai kilometrikoen merkantilizazio-bideen kolapsoa eragin daike, hornidura eza eta oinarriko elikagaien prezioaren igokera eraginaz. Inoz baino beharrezkoagoa da elikadura-subiranotasunaren aldarrikapena.

- Beste aldetik, Europak beste herrialdeakaz (Mercosur, Canada, Marruecos...) txarto deitutako merkataritza libreko tratauak sinatzeak lehia desleiala sortzean deutso tokiko



SONIA INGUNZA

Igitie Arratiako Baserritar Agroekologikoak

produktuari, arriskuak areagotzen ditu osasunean, Europako araudia betetera behartuta ez dagozan elikagaiak sartzean ixten diralako, eta araudi horrek berme gehiagogaz kontrolatan dau ekoizpena.

- Azpimarratzekoa da, gure lehen sektorea, Euskadin dogun nekazaritza-industriarako elikagaiak edo lehengaiak ekoizten dauzana, askotariko ekoizpen-sarea dala: okelea, esnekiak, barazkiak, frutak, zerealak, lekaleak, bazkak... (alde positiboa). Baina belau-naldien arteko errelebo barik, eta, batez be, inbersino handiak behar dabean ustiategiak, NPBren laguntzen menpe dagozanak, hau da, Europako funtsen menpe dagozanak nekazaritza industriaren alde doazela eta ekoizle txikiak baztertzen dabezala, petroleoaren prezioaren oso menpekoak izateaz gainera.

- Politika publikoek elikagaien industria lehenesten dabe eta ez dabe tokiko eta eskala txikiko nekazaritza-sare produktiboa benetan babes-

tuko dabean planak egitearen alde egiten, Europako beste eskualde batzutan ikusten dogun moduan, tokiko ekoizpenen bidezko merkadu propio bat behar dogu.

Adituak lanpetuta dabiz konponbideen bila... eta ikerketek gomendatzen dabe gazteen eta andren inkorporazioa nekazaritza, batez be, premi-nazkoak dirala lehen sektorea berbizteko, landa-lurraldeetan biztanleria finkatu ahal izateko... baina zelan lortu? Erakar-garriak dira lanpostu horreek? Baserriko produktuak jan gura doguz, dieta osasungarria euki gura dogu elikagai osasuntsuakaz eta hurbiltasunagaz (0 km).

Ezin dogu ezer egin barik geratu egoera hau eraldatzeko; persona askok urteak daroguz alternatibak garatzen: nekazal sindikatuak, baserri-rrak, gurasoen alkar-teak, saltoki txikiak, hainbat alkar-tek, udalek, konsumo kooperatibak, konsumo alkar-teak...

Kontuan hartuta Arratian gizarte-sare aberatsa daukagula, ekoizpen-eredu indartsuagoa, jasangarriagoa eta iraunkoragoa lortzeako aukerak daukaguz.

Leireren eta Ainhoaren eskutik, euren komunitadeetan arrakastaz martxan ipini dabean konponbideak ezetu genduzan, baita be, Bergaran egindako eta jarraitu beharreko eredu gisa.

Horregaitik guztiagaitik Arratian elikadura sistema barri bat eregi behar dogu, elikadura burujaubetzea errespetauko dauana eta biodibersidade produktiboa zainduko dauana, baita elikadura osasuntsu baten eskubidea bermatuko dauana be.

Hori lortzea oso gatxa izango litzateke ekoizleen parte-hartzeagaz bakarrik: erakunde publikoen, ekoizleen, denda txikien, gizarte-eragileen eta erronka horregaz ilusinoz bat egiten dabean persona guztien parte-hartze ausarta beharko dogu.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEATUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

ALKARREGAZ



Txumluxueta Pelota Kluba

Dimako pelota eskolea 1996. urtean hasi zan bere lehen pausuak emoten. Urterik urte aldaketak egon izan dira parte hartzeari jagokonean, baina beti saiatu gara pelotarien beharrianak asebetete eta ahal dan neurrian herriko pelotea indartuten. Atzen urteotan, aurreko urteetan egindako beharra azaleratuten hasi da, besteak beste, goi mailako pelotarien presentzia agertuaz, modalidade desbardinatoko maila gorenetan. Argi daukagu pelota eskola baten osasuna herriko txikerrenen presentziak islatuten dauala eta momentu honetan hori da helburu nagusia, daukaguzan gazteak formetan segiduteaz gainera, herriko umeei sarbidea erraztutea eta etorkizunerako pelotazaletasuna sustatutea.



LUMATUTEN**AMAIA ESPINOSA****Hau mundua!**

Ez da erraza, aspaldian ikusten, entzuten edo sentitzen dogunari edo sortuten jakuzan zenbait sentsazioei berba egokirik ipintea. Askotan, ez dalako erraza izaten sentsazio horreek zertan diran identifikatea. Eta azaldu guran edo, suspirio batez, edozein gauzatarako balio daben "Zelan dagoan mundua!" edo "Mundua zoraturata dago!" doguz erabilgarriak. Mundu hori gugandik aparteko izaki bat balitz legez.

Zenbat aldiz egunean zehar esaldiok! Egunerokotasunak eta honek sortzean deuskun harridura, bildur edo hasarreak bultzatuta botaten doguz. Baina, hori ete da egin ahal dogun gauza bakarra? Edo ezer ezin egitearen ezintasunaren orroa da? Ez! Guri mundua konpontzea gustetan jaku! Baina beti be geure errealidadeak emoten deuskun itxurazko lasaitasunetik, eta zelan ez, konponketa horretan ahoa beteten jaku, nahiz eta gure esateak eta gure egiteak zerikusi eskasa daukien.

Eta ohitu egin gara gustukoak daukaguzan berbalditxoetan, modu berebean tratazen diranean masakre bat zein ilargirako bidaiak, gudak zein kirol ekitaldiak, katastrofeak eta momentuko izarraren atzen kontzertua. Sutsuki, baina emozino handi barik, gai batetik bestera pasauz. Mundua zelan dagoan aztertuaz, baina interes handirik barik.

Dinoe, itxuraz, interes falta hori gehiegizko informazioak eta babes psikologikoak sortutako erreakzino bat dala, eta hainbeste zoritarreko barri ikusteagaz, enpatiarako gaitasuna agortu egiten dala. Hainbeste notizik bete egiten gaituela, eta geure garuna, geure osasun mentala babestearren, deskonektatu egiten dala. Eta batez be, eta nire ustez hau izango litzateke errazoirik inportanteena, gure lehentasunezko zerrrendea mugatua dala; egunerokoa, geure bizitzari jagokona edo hurbil-hurbilekoak leku gitxiago ixten deusala urrun sentiduten dogunari.

Eta bitartean, mundua bueltaka eta etorkizuna hor. Jente asko dago munduaren atzena jatorkula pentsetan dauana, eta beste asko, aldaketa batzukaz, munduak gaurko moduan jarraituko dauala.

Batera zein bestera izan, geure esku dago errealidadeari aurre egiteagaz batera, bakotxari jagokon eta bakotxak daukan esparrutik martxan ipintea. Baina ezin izango dogu bakarrik egin. Hurkoa beharrezkoa dogu, batez be mundu hau, ez daiten gehiago izan, "Hau mundua!".

ZERTZEAN**Hutsunea****MAITE ARRIZABALAGA**

Neguko egun heze bat zen. Arratsaldeko seiak ziren eta dena zegoen ilun. Nire arnasaren lurrina ikus nezakeen, epel eta aztoratua. Gorputza hotzak uzurtua nuen, eta hutsune sentipen astun batek indarrez hartu ninduen. Hiri huts bateko gaua; argi artifizialak eta bakardade mekanikoa. Isiltasuna itogarria zitzaidan eta gelditasuna pisutsua.

Kaleetan zehar nenbilen, lurrera erortzean euri tantek sortzen zuten oihartzunean murgildurik, pentsamenduetan galduta, loa kendu eta irribarrea debekatzen zidaten horietan. Nire pausu geldoek uzten zuten lorratzei begiratzen nien. Hain zen unagarria hiriko bakardadea...

Izkina uzkur hartan, oharkabean, leiho batean pizten zen argi epel bat ikusi nuen. Aurreko espaloian, ahots gozo baten barre urruna eta, nire ondoan, ate baten barrenetik zetorren musika leun bat. Agian, mundua ez zegoen hain hutsik.

Gelditu egin nintzen, euriaren erritmoari begira, tanta bakoitzak lurra jotzean zerbait askatuko balu bezala. Arnasa sakon hartu nuen, barneko hutsune hori bete nahian, eta itotzean sentitu nintzen. Arnasa hartu eta hartu, hutsunea bete eta bete, ia zorabiatu arte. Nire burua lurrera erortzen utzi nuen, azkenik, etsita. Beharbada, hutsune hori ez zen bete beharreko zerbait, baizik eta entzun beharreko isiltasun bat; eta isiltasun horretan, beldurraren azpian, zerbait ahula, baina bizirik zirauena zegoen.

Dena desagertzen denean, norbera baino ez da gelditzen. Eta agian hortxe hasten da berriro dena. Ez da hutsune bat, leku bat baizik; barreneko ahotsak hitz egin ahal izateko sortzen den espazioa. Isiltasunean ez nuen erantzun garbirik aurkitu, baina bai norabide bat. Ez nengoen galduta, mugitzen ari nintzen. Eta batzuetan, hori da nahikoa: bilaketa bera izatea bidea.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera erduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezkeru, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@begitu.eus helbidean.

BEGI TXINDORRA

Bete da urtebete, itzalaldi handiak bat-batean gure eguneroko erritmo elektrikoa eten ebanetik. Zarata digitala isildu eta kaleak bestelango argi batez bete ziran, eguzkiak gidatutako egun geldoa. Laneko mezuak desagertu, pantailak amatau eta jentea, ia ahaztuta geunkan keinu baten, kalera urten zan. Bazter guztiak barriketaldiz bete ziran, umeak barriro kaleaz gozatuten eta helduak, oindino hotz mantenu ahal ziran traguen bueltan, denporearen jaube.

Elektrizidade faltak baina, itzal luzeak be ekarri ebazan. Zerbitzu etenak, ziurbakotasuna eta galdera deserosoak: "Zer pasau da?", "Zelan da posible holango menpekotasuna?", "Fidagarria da gure sare energetikoa?". Eraso zibernetikoaren hipotesia desegin bitartean, zalantzan geratu zan konpainia handien gardentasuna, eta erantzukizunen mapa zehaztu.

Itzalaldia alde biko txanpona izan zan; bizitza sinpleago baten promesea eta gure ahulezien oroigarri garratza. Bueltau zan argia, aldatu da zeozer?



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa Ortodontzia
hagin klinikak Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Idazgela Zerbaita 101
R.P.S. 31/06

ZEANURI

Behi bako sanisidroak ospatuko dira maiatzaren 15 eta 16an Zeanurin

Abere, artisau-lan eta nekazal produktuez gainera, baserrietako beharrak ezetuarazoteko erakusketak egingo dira zapatuan.



Asier Abrisketa

Maiatzaren 15a, barikua, da San Isidro eguna eta beraz, orduan izango da meza nagusia, eguerdiz. Jarraian, Arrikibarreko jantzari eta herriko txistularien emonaldia egingo da eta arrastian Le Big Gibel Orkestragaz tabernaz taberna ibili ostean, bere alderik tradizionalena

erakutsiko dau Zeanurik hurrengo egunean, zapatuan. Izan be, antigualeko denporetako herri-ekonomien ardatza zan azokeak hartuko dau herria.

Urtero lez, ugariak izango dira nekazari eta artisauen postuak baina sanisidroetan, garrantzia berezia hartzean dabe abereek eta honeek izaten dira protagonista nagusiak. Zaldi

eta behorrak, ardi eta aharitoak, ahuntz eta akerrak egongo dira besteak beste, baina aurten ezingo da behirik ikusi. Izan be, Jaurilaritzek honeen parte-hartzea debekatu dau merka-duetan. Neurri prebentiboa da, Dermatosi Nodular Kutsakorra gaixotasun birikoaren arriskua dala-ta.

Maiatzak 15, barikua

12:30ean, meza nagusia San Isidron.

13:15ean, Arrikibar taldearen jantzaldia, herriko txistulariakaz. 19:00etan, Le Big Gibel Orkestra ibiltaria, tabernaz taberna.

Maiatzak 16, zapatua

10:00etatik 14:00etara, Abere, Artisau eta Nekazal produktuen Azokea eta erakustaldiak: gaztaia egitea, kodañea pikau, ardi-moztea, Enkarterrietako billano txakurrak eta artxo txuleta dastaketea.

11:00etatik 13:00etara, erakusketea Perratokian.

12:00etan, ardi mozketa erakustaldia Mikel Etxebarriagaz.

13:00etan, abereen sari banaketea. Plazan.

17:00etan, Euskal Pilota Selekzioaren zesta-punta prestaketako partiduak. Frontoian.

19:30ean, kantu potea Perrexilak taldeagaz.

22:30ean, erromeria Berriztu taldeagaz.

02:00etan, DJ Goxua.



IGORRE

Lehen sektoreari bultzadea emoteko lehen pausu arrakastatsua emon dau Igitiek

Igitie Arratiako Baseritar Agroekologikoen Elkarteak Arratiako instituzino, enpresa eta alkarteetako ordezkariak zein ekoizle eta konsumitzaileak deitu ebazan batzarrera aprilaren 16an.

Asier Abrisketa

Igitieko Iker Yurrebasok batzar aurretik azaldu eban alkar-tearen ardura: "Lehen sektoreko begietatik ikusten dogu mundua eta gatxa egiten jaku etorkizun positibo bat irudikatu-tea". Holan, etorkizuneko pausak ebazteko lehenengo hazia erein zan berbaldian, Gipuzkoako BioLur eta Ereindajan ekoizleen alkarteen ereduak ezetuaz.

"Zer jango dogu bihar? Gaurtik eragin!" lelopean egin zan batzarra eta Igitieko Sonia Ingunzak BEGITUN azaldu dau-nez, deialdia "subidoi" bat izan zan Igitierentzako. Izan be, oin hamabost bat urte Igitie sortu zanean oso aktibo egon zan baina atzenaldian, "bakotxa bere trintxeran" ibili da. Beraz, aprilaren 16ko deialdia motibazino puntu bat izan da eragiten hasteko. "Edozein gauza egiten bada, probetxuzkoa izango da", inoan Ingunzak.

Hurrengo pausak

Oin, BioLur eta Ereindajan

alkarteen irakaspenak hartuta, ekoizleak batu eta hurrengo pausak ebazteko dabez. Debagoienako ekoizleek ekiteko idea klabe bi azpimarratu ebazan. Batetik, ekoizleak saretu egin behar dirala, gero instituzinoetan eragina izateko; bestetik, estrategikoak diran proiektu txikietatik hasi behar dala, gero epe luzeko apostu sendoagoak planteetako; berbarako, Arratiako Elikadura Mahaia.

Edozelan be, proiektuak aztertu eta honeen egingarritasuna baloratu behar dabe oin Igitiekoek, baina Ingunzak BEGITUN aitatu dau, merkaduari buelta bat emon eta ortulaguntza zerbitzua Arratiara ekartea baloratu dabela. Debagoienan badago ortulaguntza zerbitzua eta udaletxeen oportazinoakaz langile bat edo gehiago kontratateta dira, baserriko ekoizleei lagunduten joateko. Aportazino honek, herri bakoitxeko biztanle eta baserrien arabera egiten dabez udaletxeek.



Igorreko Kultur Etxean izan zan berbaldia.

ZEANURI

Zeanurin, errotarik errota, familian egiteko ibilaldia

Maiatzaren 10ean izango da Zeanuriko Erroten XIX. Ibilaldia.

Jon Urutxurtu

2026ko Zeanuriko Erroten Ibilaldia maiatzaren 10erako, domeka, prestatu dau Joko Alai Kirol Elkarteak. Aurten oinezko ibilaldi honek hemeretzigarren edizinoa beteko dau.

Antolatzaileek adierazoten dabenez ibilaldiaren helburuak hasikerako berberak dira: "Alde batetik, herritarrei zein kanpotik hurreratzen diran bisitariei Zeanuri eta bere auzoak ezetutera emotea; bestetik, Zeanuriren historian errotek izan daberen garrantzia ez-tuarazotea eta atzenik, domeka goiza natureagaz harremanetan eta kirola eginaz pasatzeko aukerea eskaintzea". Ez dira gitxi, izan be, herri honetan ezetuten diran edota han-hemenka azaltzen diran errota edo erroten errastuak, guztira hamazortzi, danak hidraulikoak. Ibilbidean zehar zazpiren ondotik igaroko dira ibiltariak eta hirutan —Errotabarrin, Ibartutxin eta Olabarrin— sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe.

Joko Alaiko arduradunen arabera, "ibilbidea ezin hobea da familian eta umeakaz egiteko, errota eta euren instalazioak —presea, kaltzea, anteparea, errotarriak mobimentuan eta artoa ehotzen, errotapea, energia hidraulikoa...— lasaitasunez ikusteko aukerea emonaz. Beraz, domeka goiza kirola eginaz eta naturaz gozatzeaz gainera, erroten mundua ikusteko eta ikasteko aukerea emoten dau ibilaldi honek".

Ibilbide bi prestatu dabez antolatzaileek, bata luzea, 14 kilometrokoa, eta bestea, laburragoa



Olabarriko errota antepara beharrean.

7 kilometrokoa, umeentzako edo ondo prestatuta ez dagozantzako egokitua, jan-edana banatuko dan lekutik helmugara zuzenduten dana. Gainera hemendik be bisitatzen diran errota bitara sartzeako aukerea izango dabe: Errotabarrin —helmugara bidean— eta Olabarrin, azken hau helmugatik 300 bat metrora dago-ta.

Urtekeria herriko plazan izango da, goizeko 09:00etan; plazatik, udaletxearen aurretik, abiatuz eta Altxiber eta Errotabarri erroten ondotik —azken hau 2015ean zaharbarritu eben Manterolatarrek eta sartu-urtena egin ahal izango da— pasau ostean, Undurragako urtegiaren ertzetik egingo dabe aurrera.

Urtegia atzean itxi bezain laster Ibartutxiko errotarako bidea hartuko dabe; hemen, ateak zabalik izango dira, eta gura dabenek kuku bat egin eta errotea lanean ikusi ahal izango dabe. Ibartutxitik barriro Undurragako urtegia-

ren ertzetik ekingo deusie bideari —oingoan beste aldetik—; presatik 100 metro atxina, Alkiberren, indarrak barritzeko jan-edana banatuko da. Aurrerantzean, lehenengo Otzerinmendi auzunean eta gero Uribeko kofradiako lurretan sartuko dira ibiltariak, eta Intxaurbeko, Axpeko eta Zulaibargo erroten ingurutik igaro ostean, atzen kilometroa beteten hasiko dira; helmugea baino 300 bat metro lehenago ibilbideko atzen errotea azalduko da, Olabarrikoa —Pujana familiak guztiz zaharbarritua— eta hemen be sartu-urtena egiteko aukerea izango da, Zeanuriko plazara heldu eta ibilaldiari amaiera emon aurretik.

Ibilbidea burutzerakoan, 14 kilometro eroango dabez oinetan ibiltariak, baina ziur ziteari erantzuteak mereziduko deusela, erroten ondare historiko-etnografikoa ezetuteaz gainera, udabarrian natureak azaltzen dauan koloreen sinfoniaz gozatzeo aukerea izango dabe-ta.

Bisitetan diran hiru errota

Ibilbidean zehar zazpi erroten ondotik igaroko dira ibiltariak eta hirutan —Errotabarrin, Ibartutxin eta Olabarrin— sartu-urtena egiteko, eta errotea osotuten daberen atalak bertatik bertara ezetuteko aukerea izango dabe.

Errotabarriko errotea: Otzerinmendiko kofradian dago. 1785ean eregi eben. Zeanuriko errotarik barriena da. Hiru harri ditu. Errota honetan, presea eta anteparea lotuta dagoz konporta baten bidez. Zeanuriko gaintzako errotetatik bereiztuz, Errotabarrin errotapetik kaltze bat ateraten da, urak errekarra bideratzeko. 1975eko apirlean

itxi eutsan lan egiteari eta atzen errota Andres Aldekoa "Ane" izan zan. 2015ean guztiz zaharbarritu eban Errotabarri Mantarola familiak.

Ibartutxiko errotea: Ipiñaburuko kofradian dago. XIX. gizardian burdinolea izan zan. Gaur egun harri bi badaukaz be, hiru harrigaz egin eban behar. Hirugarren harriak 1950erantza itxi eutsan lan egiteari. 1945ean errotearen azpiko aldean turbina bat eta generadore bat ipini az argindarra ekoizten hasi ziran Ibartutxin, eta 1978ra arte gitxi gorabehera Altxua, Ipiñaburu eta Undurragako baserri batzue-

tara saltzean eben elektrizidada. Ibartutxiko errotearen instalazioak guztiz zaharbarrituta dagoz. Atzen errota Gabriel Larrazabal izan zan, eta bere heriotzearen ostean, urte batzutan, Satur semeak jarraitu eban ingurukoentzat ehotzen. 2019an Pedro Elexpek erosi eban errotea eta bera da gaur egungo jaubea.

Olabarriko errotea: Ibartutxiko kofradian dago. Jatorriz burdinolea izan zan eta Zeanuriko patroa zan Arriola familiarena zan jaubetza. Pujanatarren aurretik Manterola familiak ustiatu eban, 1898ko zemendiaren 30ean, San Andres egunean, Isidro Pujana, errentari moduan, errotearen kargu egin zan arte. XX. mendearen erdirantza Benigno

DIMA

Irakurketa talde feministea sortu dau Andraizeak Diman

Lehenengo saioa maiatzaren 11n egingo da, Danele Sarrugarteren *Beste zerbait* liburuaren lanketeagaz.



Asier Abrisketa

Dimako Andraizea andra taldearen ekimenez, maiatzaren 11n Irakurketa Talde Feministako lehenengo saioa egingo da, 17:30etik 19:00etara Abaroan. Lehen saio honetarako Danele Sarrugarre kazetari eta idazlearen *Beste zerbait* (Consonni, 2025) liburua aukeratu dabe eta idazlea bera egongo ez bada be, Alaine Agirre idazleak dinamizauko dau saioa. Izen-emotea maiatzaren 4ra arte dago zabalik, udaletxean. Andraizeatik BEGITUN aurreratu dabenez, Irakurketa Talde Feministaren bigarren saio bat egingo da bagilaren 8an eta datorren ikasturtean balorauko da ekimenagaz jarraitu ala ez.

Sinopsian azalduen danez, *Beste zerbait* ez da ohiko no-

bela bat: "Nobela mutante bat da, gorputza eta hizkuntza aldatzen saiatzen dana, desira kuir baten itsasargi. Protagonistak mutazino-gosez eta desiraz desplazauta biziten eta idazten dau; bizipen afektiboak, heziketa-esperientziak eta irakurketa feministak kiribilka doaz, hainbat ahots, forma eta tonuren bitartez adierazota. Testuak lekukotasuna, hausnarketa kritikoa eta eszena narritibo gordinak tartekatuten ditu; espazio zartatu batetik idatzita dago: zakarra, sutsua, batzutan hauskorra eta beste batzutan amorrut betea. Ez da edukiaren aldetik kuir nobela bat bakarrik, narrazioaren dispositiboa bera da disidentea, eta euskera ez-bitar baten bidez idatzita dago, desira eta plazeretik abiatuta".



Pujanak —Isidroren semeak— errotea erosi egin eutsen arriolatarrei. Benignok errota lanetan jardun eban 1995eko urri bigarrenaren 11n hil zan arte. Aitaren heriotzearen ondoren, Fermin semeak errotearen zaharbarri-

tze lanei heldu eutsen, eta gaur egun guztiz zaharbarrituta dago. Olabarriko errota hiru harri ditu. Errotearen ondoan burdinolaren arrastoak azaltzen dira. Erabilitako balantzea be erroten gordeten da.

LEMOA

Hiru astez luzatuko da aurtengo Kultura eta Memoria egitaraua

Hilaren 7tik 22ra egingo da kultur eskaintza berezia proposatuko dauan ekimena.



Garikoitz Goikoetxea *Esnatu ala hil* liburuagaz.

Asier Abrisketa

Atzen urteetan Memoria eta Kultur Astea izan dana maiatz ia osoan egingo da aurtan. Lehen, aste baten egunero egiten ziran jarduerak baina oin, eguen eta barikuetan pilatu dabez ekin-tzok. Lemoako Udalak antolatuta-ko ekimenak helburu bikotxa dauka; batetik jarduera kultur-alakaz gozatutea eta bestetik, Memoria Historikoaren gaineko hausnarketea bultzatutea. Halanda be, aurtan ez da Memoria Historikoagaz lotutako jarduerarik egingo.

Ha-ta guzti be, iragana ez,

baina etorkizuneko lanketeagaz hasiko da Kultura eta Memoria ekimena, euskarearen etorkizunagaz hain zuzen be. Izan be, hilaren 7an, Gaikoitz Goikoetxea euskera teknikaria egongo da Kotxepinen, berak eta Iñaki lurrebaso soziolinguistek idatzitako *Esnatu ala hil. Euskararen oraina eta geroa, diagnostiko baten argitan* liburua aurkeztuten. Euskalzaletasunean atzen urteetan sumatuten dan noraezetik hasita, "esnatze baten premia agerikoa da: astindu bat, urrats handiagoak, bestelako lan-ildoak; oin artekoagaz honaino heldu gara; aurrera egiteko, hori baino

gehiago behar da", dinoe sinopsian. Holan, aurrera egiteko "helduleku" izan gura dau liburuak, non eta zelan eragin aztertuteko.

Maiatzak 7, eguena

19:00etan, Garikoitz Goikoetxearen *Esnatu ala hil* liburuaren aurkezpena. Kotxepin Kultur Etxean.

Maiatzak 8, barikua

21:30ean, Deabru Beltzak taldearen *Su danborrak* ikuskizuna. Arraibin.

22:15ean, *Akelarre: marearen kontra* dokumentalaren proiektzioa. Arraibin.

Maiatzak 14, eguena

18:00etan eta 19:15ean, Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertuak. Kotxepin Kultur Etxean.

Maiatzak 21, eguena

19:00etan, *Hezur berriak* bertso-saio literarioa Ane Labaka, Ines Osinaga, Onintza Enbeita, Jone Uria eta Erika Lagomagaz. Kotxepin Kultur Etxean.

Maiatzak 22, barikua

18:00etan, Antxo eta Pantxa pailazoen *Lurrazpitik* ikuskizuna. Kotxepin Kultur Etxean.

ARTEA

Arteako UBBk Gorka Beitia aukeratu dau alkatetzarako

"Hurbiltasunetik, erantzukizunetik eta alkarrizketatik" lan egiteko konpromisoa hartu dau Beitiak.

Asier Abrisketa

Alberto Intxaurreagak errazoi profesionalak zirala-ta Arteako alkatetzea itxi ostean, behin behinean Ainare Sanchezek hartu eban honen lekukoa Arteako Uri Buru Batzarrak behin-betiko alkatea erabaki arte. Arteako UBBk ordezkaria ebartzita eta aprilaren 20ko ezohiko bilkuran izentauta, Gorka Beitia Zurinagak beteko dau alkate kargua, gitxienez 2027ko Udal Hauteskundeetara arte.

EAJK prensa-ohar bitartez jakinarazo dauanez, Beitiaren

hautaketeak "alderdia Artean garatzen dabilen proiektuari jarraitpena emotea ahalbidetzen dau; kudeaketa arduratsuan, hurbiltasunean eta bizilagunegazko konpromezuan oinarrituta".

Beitiak 51 urte daukaz eta zinegotzi moduan, Hirigintza, Berdintasuna, Hirugarren Sektorea eta Ingurumena arloetako ardurera izan dau. Udal ordezkari moduan, EUDEL-en, Ur Patzueroan, Arratiako Udalen Mankomunitatean eta Gorbeialden hartu dau parte eta Bizkaiko Batzar Nagusietako Kultura eta Euskara Batzordeko burua da.



DIMA

Lehenengo Gardena merkadua antolatu da Garena jatetxean

Maiatzaren 10ean, jatetxea horniduten daben ekoizleak izango dira protagonistak.

Asier Abrisketa

Dimako Lamindao auzoko Gardena jatetxeak 2024an produktu eta zerbitzuez horniduten eban zekoizle eta artisauen komunitadea batu eban, Gardena Manifestua sinatuteko. Helburua antxinako baserrietako barazki eta animaliak, eta honeek jagoteko moduak berreskuratu eta gordetea da, antxinako plater eta saboreei barriro bizia emoteko. Oin, ekimen honen garapenetik sortu da Gardena merkadua, maiatzaren 10ean jatetxeko terrazan egingo dana.

Merkadua 12:00etatik 15:00etara egongo da zabalik eta Julen Baz sukaldariak sareetan iragarri dauanez, bertan "ekoiz-

leek zer egiten daben, lan zelan egiten daben eta produktuen jatorria ezetu ahal izango dozue, bai eta euren altxorak etxera eroan". Azokea girotuteko, zuzeneko musikea be egongo da, Hekthor Folk-en eskutik, ia edozein objektugaz musikea egiten dakian euskal artista gaztea.

Herriko plazea izango bazan

moduan, Garenako terrazan postuak ipiniko dira eta besteak beste, bertan topau ahalko dira Igorreko Iker Yurrebasoren barazki eta produktu landuak, Puy Arrieta eta Jon Etxebarriaren Ipiñaburuko gaztaia, Rekalde harategiko okelea, Dimako Kepa Iltzaren ogia eta Ainara Garayren zeramika eta ontziteria.



SAN ISIDRO JAIAK ZEANURI 2026

MAIATZAREN 15a, BARIKUA
San Isidro eguna

12:30 Meza nagusia San Isidron
13:15 **ARRIKIBAR** dantza taldearen emanaldia herriko **TXISTULARIAKAZ**
19:00 **LE BIG GIBEL ORKESTRA** ibiltaria. Tabernaz taberna.

MAIATZAREN 16a, ZAPATUA

10:00-14:00 **ABERE, ARTISAU ETA NEKAZAL PRODUKTUEN AZOKA**
Burutuko diren ekintzak:
• **GAZTAIA EGITEA:** Josefina Egiluz eta Enrike Etxebarria
• **KODAÑEA PIKAU:** Pabi Astondoa
• **ARDI MOZTEA:** Mikel Etxebarria
• **ARTXO TXULETA DASTAKETA**
• **ENKARTERRIETAKO BILLANO TXAKUR ARRAZA ERAKUSKETA**

11:00-13:00 **PERRATOKIAN ERAKUSKETA**
12:00 **ARDI MOZKETA** erakustaldia. Mikel Etxebarria
13:00 **ABEREEN SARI BANAKETA PLAZAN**
GOIZ GUZTIAN ZEHAR: Plaza inguruan **HERRIKO TXISTULARIAK.**

17:00 **ZESTA PUNTA** partidak Zeanuriko frontoian.
EUSKAL HERRITIK MUNDURA
Euskal Pilota Selektzioaren prestakuntza txapelketa.
• Zesta-punta banaka gizonezkoak (2 partida)
• Zesta-punta banaka emakumezkoak (2 partida)

19:30 **PERREXILAK** taldea. Kantu poteoa tabernaz taberna.
22:30 **BERRIZTU ERROMERIA**
02:00 **DJ GOXUA**






AREATZA

Laminetxe Gaztetxearen urteurrena ospatuko da maiatzaren 9an

Inguruko eragileak ezetu, bazkaldu, poteau eta kontzertuakaz gozatuko dabe 4. urteurrenean.

Asier Abrisketa

Areatzako Laminetxek atek 2007an zabaldu baebazan be, 2015ean erabilera eten zan. Ha-ta guzti be, 2022an belau-naldi barri batek barriro ekin eutsan asanblada bitartez jarduerak antolatuteari eta oin, hilaren 9an, bigarren ozpatuko da laugarren urteurrena. Eguerditik aurrera, egun osoan zehar luzetuko da jaia.

Inguruko eragileak ezetuteko ibilalditxoa, bazkaria, herritik poteoa eta jolasak eta gauzez, kontzertuak egingo dira. Bazkarirako txartelak Areatzako Bixer eta Aldamin tabernetan, zein Igorreko Axular Herriko Tabernan dagoz salgai.

Maiatzak 9, zapatua

12:00etan, harrera gaztetxean. 12:30ean, eragile desbardinak ezetuteko ibilbidea: Areatzako Harrera Etxean, Kiñu Gaztetxea, Batu Elkarlaguntza Sarea, Orratzak talde feministea. 15:00etan, bazkaria. Gero, bazkaloste girotua. 17:30ean, poteoa eta jolasak. 22:00etan, kontzertuak: Labar eta Acido folkloriko. Gero, DJ Lamin.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Egin nirekin ere euskaraz! kanpainan dago Cauria Tayeb Ahmed Salem

Kanpotik etorri arren, danak bertokoak eta euskaldunak dirala nabarmendu gura dau UEMAK.

Asier Abrisketa

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak hirugarren urtez ipini dau martxan *Egin nirekin ere euskaraz!* kanpaina, batetik edo bestetik etorri, euskaldundutako etorkin asko dagozala azpimarratu eta aitortzea egiteaz gainera, aurreretiak gauditu eta honek be euskeraz egin daitekeala gogorarazoteko. Urtero, hainbat etorkinek hartzean dabe parte kanpainan eta aurren, Saharatik etorri eta Igorren bizi dan Cauria Tayeb Ahmed Salem-ek be harzean dau parte kanpainan.

Cauria 2008tik bizi da Igorren eta 2010ean ekin eutsan euskera ikasteari. Bere lehen hizkuntza hassaniera da baina adierazotz dauanez, euskera lehenengoz entzutean "ikasteko jakinmina sentidu"



eban. Euskerea, hizkuntza "oso ederra, eta gatxa be" dala dino. Bere alabea lagundu eta ingurukoakaz komuniketako ikasi dau euskera eta honek "konfidantzea eta errespetua" emon deusazala adierazotzen dau: "Igorreren parte sentiduten naz, egin nigaz euskeraz, gu euskerea gara!".

ARRATIA

Arratiarrek Arratian lan egitea ahalbidetuteko bost proiektu ipiniko dauz martxan Errotak

“Etorkizuneko Arratia izango danaren lehen harria ipinten gabiz gaur hemen”.



Asier Abrisketa

Aprilaren 22an, Errota Fundazioak atzen urtean udalakaz, enpresakaz, hezkuntza zentroakaz, Gorbeialdegaz, alderdi politikoakaz eta arlo sozialeko alkarreaz landutako Biherko Arratiarantza Plan Estrategikoa aurkeztu eban Igorren. Bertan azaldu ebenez, “ingurumen, ekonomia eta gizarte aldatetek ekarritako erronkei modu bateratuan aurre egiteko” helburuagaz landu dabe plana. Hogeitik gora persona egon dira urte batez hau lantzean, eskualdearen garapenari ekiteko modu bakarra “alkarlana” dala azpimarratuta. Aurkezle lanak egin ebazan Iratxe Etxebarriak azaldu eban: “Etorkizuneko Arratia izango danaren lehen harria ipinten gabiz gaur hemen”.

Angel Ramos Ilunbeko zuzendaria, Esther Iturrioz Lemoako alkatea (EAJ), Arratia BHIko Galder Olibares, Xaber Ozerinjuregi BATZeko zuzendaria, Nahia Urrutxua Zeanuriko alkatea (EH Bildu) eta Gorbeialdeko LGAKo Peli Manterola izan ziran, Errotako Kizkitza Aurrekoetxeagaz batera, aurkezpenean berbea hartu eta prozesuaren gainean berba egin ebenez. Plan Estrategikoa aurkeztuteaz gainera, idea bi azpimarratu ebenez. Batetik, fokua Arratia mailan ipinten hasi behar dala, eta ez herrietan; bestetik, prozesuak

idea eta politika desbardinak daukazan jentea bateratu eta lanean ipini dauzala, giro onean gainera. “Ez dozue sinistuko, baina afariren bat be egin dogu!”, inoan Aurrekoetxeak.

Errotak eta erakunde zein enpresetako ordezkariak misino zehatz bat definidu dabe: 2040rako, Arratiatik kanpo lan egiten daben biztanleen % 25ak eskualdean lan egin dagian lortzea, kultura barritzailea sustatuaz eta giza kapitala prestatu eta atxikituaz. Misinoa bideratzeko, alkarlanean aurre egiteko bost erronka be identifikau dabez: eragileen arteko lankidetzeta indartutea, enpresen lehiakortasun eta barrikuntzeta handitzea, talentua erakarri eta atxikitzea, lurraldearen garapen jasangarri eta orekatua eta ekintzailtza sustatutea.

Bost proiektu eraldatzaile

Definidutako misinoa bete eta erronka nagusia kontuan hartuta, Biherko Arratia Plan Estrategikoaren bitartez bost “proiektu eraldatzaile” ipiniko dira martxan. Lehenengoa, jarduera ekonomikoa indartzeko Eskualdeko Garapen Ekonomikorako Plataformea izango da, enpresen arloa indartuaz, jarduera ekonomikoaren eta dinamizaziorako proiektu eta zerbitzuak bideratuko dauzanak.

Bigarrena, bertoko talen-

tua eta enplegua konektetako Arratiako Enplegu Zerbitzua da. Enplegu plan bateratua izango da; izan be, Igorre eta Lemoan badagoz enplegu plan propioak baina herri txikiak be heldu, eta danak konektatu gura dira holan.

Hirugarrena, Arratiako Berrikuntza Fabrika da, ideatik habitatuta, honek proiektu bihurtuteko espazioa izango dana. Baten batek negozio idea bat izatean, hau gorpuztuteko akonpainamentu lanak egingo dituan zerbitzua da eta fokua, batez be gazteengan ipiniko dau. Enpresa zein instituzino publikoakaz zubilana egitea izango da lan nagusia, proiektuak gorpuztutea erraztuteko.

Laugarrena, esperientzia aprobetxetako Bidelagun Proiektua da. Erretirauta dagoan eta esperientzia handia daukan jentegaz lantalde bat osotuko da, ekintzailtza proiektuetan jakituriagaz lagundu eta belaunaldien arteko lankidetzeta indartuteko helburuagaz.

Bosgarrena eta atzena, Arratiako lehen sektorea indartuteko Hemengoa Sarea izango da. Dendak, jatetxeak eta ekoizlearen arteko alkarlana bultzatu, bertoko produktuak balioan ipini eta honeen bideragarritasuna topetako helburua dauka proiektuak. Atzen finean, “belaunaldi barriei baserrian bizi ahal izateko egoera sortzea”.

Feria? Zertarako?

Areatzako ganaduzaleak

Urtero-urtero, jada hamargarrenez, udabarrian ganadu azokea antolatzen dogu Areatzako ganaduzaleok, mimoz eta ilusino handiz. Ahaleginez, plazea ganaduz beteten dogu, baserria plazara ekarten dogu, ganadua mendira bota aurretik herriari erakusten deusagu.

Baina, zertarako?

Lehenago feriak salerosketarako espazioak ziran, tratu komertzialerako guneak. Gaur egun ez, apenas egiten da salerosketarik. Ganaduzaleok gura doguna, gure ganadua erakustea da, batzuk besteena ikusteko, gure arteko hartu-emonen sendotzeko, danon artean egun eder bat pasetako...

Ganadua plazara ekarten dogu, bere usain eta euliakaz, animaliak ikusiaz afizinoa sortu eta ganadu zaletasuna sustatzeko. Arbasoen lanbide zaharrak gogora ekarteko, herri izaera sendotuz. Elikadura subirautea aldarrikatzeko, bertako produktuak bultzatuz.

Gure mendi eta basoetan ganadua egotearen garrantzia azpimarratu gura dogu.

Danori gustetan jaku Gorbeia begiratu eta mendi larre berde-berdeak ikustea, mendira joan eta sasi eta otaz garbi egotea, gaztai on bat edo albondiga gozo batzuk jatea... Herria zelai berdez inguratuta egotea... ba hori guztiori ganaduzaleei esker egin ahal dogu.

Gainera, mendian dagoan ganadua, herrialdeari etenbako onura egiten dabil, urte guztian zehar, mendia garbi mantenduz eta suteak ekidinez, bioaniztasunari lagunduz...

Esaterako, uda guztia mendian dagoan edozein ganadu, jaioten danetik onura egiten dabil, nahiz eta urte eta piku euki arte ez dan “produzitzen” hasiko, nahiz eta bere umeak azagariak jan eta ganaduzalearentzat urte “hutsa” izan.

Bestalde, hemen gehienok afizinoz gara ganaduzale, askotan gastu asko eta irabazi gitxi eukiten dogu. Baina gustetan jakuz animaliak, gustetan jaku ganadua haztea, mendia gustetan jaku, “zoramen” hori daukagu.

Horregaitik herriagaz partekatu gura izan dogu, Areatzako feria eguna, danon gozamenerako antolatuz. Bide batez, honakoak eskatu gura doguz:

Batez be errespetua

- Errespetua da mendian txakurrak lotuta eroatea, zaborrik ez botatea, kotxeak “traban” ez ixtea.
- Errespetua da tokian tokikoa konsumidutea, bertako haragia jatea, bertako jogurta erostea...
- Errespetua da itxita topetan dan “atea” itxita ixtea.
- Errespetua da artalde bat bidea pasetan topetan badozu, geldi egon eta lasai itxarotea pasau arte...

Laguntzea be bai, agintariari laguntzea eskatzen deutsegu

- Mendiko bideak mantenu eta barriak egiteko.
- Mendiko ur-askak mantenu eta barriak egiteko.
- Negu-basoak prestatu eta mantenduteko.
- Baso garbiketarako egiteko.
- Burokrazia arindu eta trabak kentzeako...

Atzen baten, herriko plazea urtean behin, pekorotz eta euliz beteten segiduteko asmoa daukagu, hemen gagozala gogorazoteko eta errespetua eskatzeko. Eskerrik asko!

Arratiako Musika Eskola

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

4 URTEK AURRERA ETA ADIN MUGARIK GABE

Matrikulazioa ONLINE
www.arratiakomusikaeskola.eu

*** INFORMAZIOA:**

- Web gunean
- Astelehen eta asteazkenetan
10:00etatik - 13:00etara
- Astearte eta ostegunetan
12:00etatik - 15:00etara

Telefonoa: 94 631 73 52

MATRIKULA
Epea: maiatzean

ESKAINNTZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industriala
- Garraioa eta Logistika

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ZIURTAGIRI PROFESIONALAK (C graduak)

- Hodien, eraikuntzen eta metal-arotzeriaren fabrikazioa
(591 ordu) Arratsaldez
- Sistema mekanikoen mantentzea
(555 ordu)

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

Langabeei eta landunei zuzendutako ikastaroak

CENTRO INTEGRADO
DE FORMACIÓN PROFESIONAL

ZORNOTZA

LANBIDE HEZIKETAKO
IKASTETXE INTEGRATUA

Aurrematrikula
maiatzaren 4tik 22ra

Matrikula
uztailean

Ate irekiak
maiatzaren 7an

☎ 946 730 251 ✉ info@fpzornotzalh.eus
 www.fpzornotzalh.eus

GARAZI NAVAS

“Saiatuten naz gauza herrikoï eta akademikoak, biak batera eta euren onerako buztartuten”

Arratiako Koruak 75 urte bete ditu eta ospatuteko, diskoa grabatu eta kontzertua eskaini eben Areatzan, “eleizea hankaz gora” ipinita. Kontzertu eta diskoaz berba egiteko atxakiagaz, koruaren osasunaz, lehenaz eta geroaz be berba egiteko aukerea izan dogu Garazi Navas zuzendariagaz.

Asier Abrisketa

Garazi Navas (Usansolo, 1995) Arratiako Koruko zuzendaria da gaur egun. Aurreko zuzendariak, Ane Legarretak, deitu eban Navas 2017an akordeoia joteko eta hau joanda, Legarretaren lekukoa hartu eban Navasek. Karrera akordeoilaria izanda, gitxika-gitxika dabil bera be, abeslariakaz batera zuzendaritza ikasten. Heldu zanetik hainbat bidaia, tartean Vatikanora, eta *Santa Ageda eta aldaerak* diskoa egin dabez eta bere ustez, hori izango da Arratiako Korua 100. urteurrenera be ailegetako kakoa, mugarririk ipinten jarraitu eta motibazioa mantendutea: “Eta aurten, urteurrena ospatuteko Vienara goaz, lau egun, San Keremos!”.

Zer suposatuten dau zuzendariaren ibilbide luzea daukan koru bat gidatzeak?

Ni ez naz txikitatik koruan egon eta orduan, kanpotik etorrita, koruaren historia ezetu behar da. Ez hori bakarrik, korua musika eta giza-talde bat da eta talde moduan badaukaz bere mania eta errutinak. Orduan egin behar izan nebana izan zan nire lan egiteko modua eurei moldatu. Egia da zuzendaritza hautazko moduan hartu nebala karreran, nire espezializazioa akordeoia da, ez zuzendaritza. Eurakaz ikasten joan naz, praktikak karrera amaituta egin dodaz, hipotetikoki. Eurak be badakie, apur bat laboratorioriko arratoi moduan erabili dodazala. Uste dot taldea eta ni, batera ikasten joan garala eta gainera, oin inoz baino jente gehiago eta inoz baino hobeto gogozala esango neuke.

Zerk egiten dau Arratiako Korua hain berezi?

Gauza asko dagoz. Alde batetik, askotariko jente dagoala. Normalean koruetan edade batetik gorako jente egoten da eta hemen umeenak, Kattalinek be deratzi urte edo, eta Bittorianok 85 urte daukaz. Honeen artean adin eta herri guztietako jentea

dago, badago familia hemen euki eta entsegetara Bilbotik datorren jentea... Bittorianoren kasuan adibidez, aitita, aita eta ilobak dagoz koruan, familia guztia. Hori oso berezia da eta ez da inon emoten.

Bestetik, jente amateur dala. Ez dakie partiturarik irakurten, orduan, hori erronka bat da. Ni horretan alfabetizaua naz eta orduan partitura hori irakurten ez dakian jenteari erakutsi behar deusat... euskeraz jakingo ez baneban be erronka bat izango zan, bardina da musikeagaz. Gero, egia da askok txikitatik, bizitza guztian zehar kantau dabela eta badaukiezala mania batzuk. Batzutan politikak dira baina beste batzutan zuzendu egin behar dira eta asko kostetan da holangoak arteztutea. Gauza batzuk aldatu eta beste batzuk mantendu doguz, hor gabiz beti negoziatzen.

Garranzitsua da be bai, pentsamolde desbardinatuko jente dagoala. Santa Ageda jai erlijioso bat da, lehen ez baina oin bai, eta badago sinistuten dauan jente eta sinistuten ez dauana. Hori batzea be ez da gauza erraza eta ibilten gara, asanbladan gauzak bozkatuten eta.

75 urteko ibilbidean, ze mugarririk gogoratuten dira koruan?

Korua 1951n sortu zan, Areatzako Victor Sierrasesumaga eta Arteako Juan Bernaola herri baxotzeko koruan egoten ziran eta betidanik lagunak izanda, koruak batu ebezan. Arrasti partean, farolillo bategaz urteten ziran. Ume batek eroaten eban farolilloa, hori oin ez da egiten eta penea be bada. Horregaitik kontzertuan ipini genduzan farolilloak. Gero, ume eta andrak 1965-67 tartean sartu ziran eta hortik aurrera, egia da gizonen kopurua beheraka eta andrana goraka joan dala. Koru guztietan pasetan da hori. Gu momentuz mantenduten gara gizonakaz ondo baina... Ez dakit zer pasetan dan baina gizonak ja ez dabe kantetan euren bizitzan!



Badago sinistuten dauan jente eta sinistuten ez dauana. Hori batzea be ez da gauza erraza eta ibilten gara, asanbladan gauzak bozkatuten eta

Liburu bat dago, 50. urteurrenean atera zana, argazki pilo bategaz. Hor ikusten da, hasieran Artea eta Areatza bakarrik ziran eta eroaten eban mobiduteko furgoneta moduko bat. Sasoi horretan badagoz barregarri eta triste artean dabiz irudiak, dibersidade funtzionala eukien personentzako dirua batzean eban eta kartelean ipinten eban: “Coro de Arratia pro subnormales-en alde”. Badagoz argazki batzuk... eskerrak gauzak aldatu diran. Letretan be badagoz: “Arratiako atzeratuen alde...”. Lehenagoko gauzak.

Gero, 1968an lurrikara bat egon zan Sizilian eta dirua bertara bialdu eban, garai horretan ez zan erraza izango. Sasoi horretan eta urte pilo batez, egon zan zuzendari bat be, Aita Juan Jose, Arratian lanean egoan gipuzkoar abade bat. Aita Juan Jose Madrileran desterratu eban, ez dakit zer esango eban, ETAren alde edo auskalo... Egia esan horregaz arazoak izan ebezan, ze Francoren garaian Bilboko alkatea zan Pilar Careaga, frankistea klara, eta honek ez eutsan Aita Juan Joseri korua Bilbora eroan eta kantetan itxi, eta zuzendaritz aldatu behar izan eban edo... Egon ziran arazo po-

litikoak orduan.

Nire garaia kontuan hartuta, 2022an Erromara joan ginan, Vatikanora. Mezea emon zan eta guk mezako zatiak kantau genduzan. Han egon zan Erromako obispoa eta abade pilo bat. Bisita bat egin euskuen eleizatik eta bertako museoa be ikusi gendun... Nik uste dot eurentzako, ez da nire kasua baina batez be sinisdunak diranentzako, oso berezia izan zala. Sinisduna ez bazara be, espazioak asko baldintzatuten deustu eta espazio itzela da... Efektu berezia egiten dau, arraroa baina positiboa. Hasieran arraroa da, ze itxoraton deusue hogeï abadek baina gero oso ondo portau ziran. Errespetua emoten dau, nik asko miresten dodaz baina hori ez da nire mundua, nire giroa, eta hankea sartzeako bildurra daukazu... Baina bueno saiaturten gara eta oso ondo pasau gendun! Gero batzuk aireportuan be galdu genduzan... badagoz kriston anekdotak.

Pasau dan urtean Bordelen egon ginan kantetan; ni korua heldu baino arinago eurak Kantanian egon ziran. Santa Agedaren jaioterria da, Siziliako herri oso polita. Eta aurten, urteu-

rrena ospatuteko Vienara goaz. Barikutik astelehenera goaz, lau egun, San Keremos! 40 goaz hegazkinean eta meza internazional baten be kantauko dogu.

Eta oin zugaz, beste mugarri bat ipini dala esango zenuan? Ze aldaketa ekarri dozuz?

Bueno hori esateak, lotsea emoten deusta... Nik ahal dodana egiten dot! Niretzako inportantea da ni eta eurak, danok batera ikasten gabizala urteotan zehar. Esan dodan moduan ni ez naz karreraz zuzendaria, eurakaz ikasi dot egiten. Baina egia da nire lana musikea dala. Horretara dediketetan naz eta klaseak emoten dodaz, akordeoia, baina bueno bardin-bardin, musikea dala.

Aurretik izan dabean zuzendari guztiak ez dira izan guztiz profesionalak, euren ikasketa guztiak ez dira musikakoak izan. Nik koruaz aparte egiten dodan guztia musikea da, mota desbardinetakoa. Orduan, nire ibilbidea akademikoa da eta ni saiatuten naz gauza herrikoia eta akademikoa, biak batera eta euren onerako buztartuten. Saiatuten naz, batzutan ez dot lortzen.

Egia da asko "matxaketan" dodazela eta entsegu asko egiten doguzala, ez dakit limitea non egongo dan, baina gero eta gehiago! Atzenean disko-rako asko egin dogu. Disko bat grabatea gogorra da, ondo egin behar da eta errepikatu doguz 10.000 gauza... Horretan eurak be ikasi dabe zer dan musikari profesional bat izatea.

Ze indargune eta ze erronka daukaz gaur koruak?

Ba egia da ni heldu nazanetik, lehen jente gitxiago egoala eta ointxe gazte eta ume gehiago etorri dirala. Umeen korua egin dogu disko-rako, hori lehen ez egoan. Uste dot umeek euren artean berba egin eta gehiago erakarri dabezala. Gero, ba familiako zera hori mantenduten da. Euskal gizartean gitxi kantetan da ja, eta koruan kante-tearena ez dala heredetetan... bazkarietan eta be ez. Baina koru honetan mantenduten da, eta indargune handia da, ohituea mantenduten dalako eta saiatuten gara hari hori ez eteten.

Ikusten da gero eta jente gehiago dagoala, igual etorri dala jentea, ez dauana euki korurako hainbesterako tradizioa, familiaratik edo... eta horrek be korua aberasten dau. Motxila desbardinetakoa jentea etorri da eta hori beti da ona. Badagoz batzuk irakurten dabena, beste batzuk ez; alkarregaz lagundu egiten dira eta horrek aberastasuna dakar. Nik uste dot, nire



esperientziatik, taldea gehiago bildu dala. Alkarregaz proiektu bat eukiteak dakarrena da hurbiltzea. Hor dagoz indarguneak, gero eta gehiago praktketan dogu eta gero eta profesionalago egiten doguz gauzak; grabazioa mugarri bat izan da.

Eta erronkak... ba jentea mantendutea! Horrek kostetan dau, batez be gazteak. Oin urri lehenengoko bidaiagaz beste mugarri bat daukagu, baina mantendu egin behar da. Ez da erraza, apur bat coach moduan ibili behar zara hor, jentea animetan-ta. Batzutan esaten dot, musikea baino gehiago psikologo moduan ibili behar zarela, eta nazinoarteko harremanak, hor tartean harrapetan deutsu. Baina polita da eta gustetan jata. Hor dago erronka, mugarriak ipinten jarraitu eta motibazioa denporan zehar mantendutea.

Aurretik be, disko bat aterateko indartsu egon behar da, zelan sortu zan idea?

Ba oin dala sei urte inguru edo. Kontua da ni heldu nintzanean emon eustiela partitura txosten bat eta batzuk ez eukien ez konpositorerik ez ezer. Partitura zaharrak, ez dakit zenbatetan fotokopiatuta. Norenak ziran jakin barik, begiratuten hasi nintzan artxiboetan eta. Topau neban Aita Santa Teresarenak zirala. Aita Santa Teresa Zornotzan bizi zan karmelita bat zan eta abade honek, Arratiako Koruarentzat konposatu ebazan Agate Deunaren harmonizazio desbardinak. Horregaz liburuxka bat egin eban, *Agate Deunaren abesti-txorta*, 1975ean edo argitaratu zana. Hori existiduten zan baina ez genkien non. Gartzenen laguntzeagaz,

pasau dan urtean hil zan, Santutxuko karmelitetara joan ginan eta han, kutxa baten agertu zan partitura sortea.

Holan hasi ginan jakiten gauza bakotxa norena zan, orduan eurak lehenago egiten ebezan Aita Santa Teresaren bi-hiru kanta zuzendu genduzan, partitura originalak ikusita. Baina baegozan be, Agate Deunaren

beste hainbat harmonizazio erabilten ez genduzanak. Orduan esan eustien, laster 75 urte egingo zirala eta idea ona izango zala Agate Deuna barriak ikastea eta disko bat prestatzea. Holan hasi ginan apurka-apurka, sei urte lehenago, partitura barriak ikasten eta urte bakotxean barri bat gehitzean.

Gaiak tradizio asko dauka Arratian, ze barritasun emon deutsazue diskoagaz tradizioari?

Lehenengo egin doguna da, geunkan guztia bildu. Ze herri musikan gertatuten dana da, gizartearen moduan asko aldatuten dala eta lehen egiten ziran gauzak galdu egiten dirala, barri batzuk asko pentsau barik aldatuten dirala... Ondo dago, ze musikea bizirik dago eta aldatu behar da. Baina diskoaren idea izan zan guk egindako forma guztiak gordetea, eta koplak barriak gehitutea. Ez dira barriak, Aita Santa Teresak bildutakoak eta Amillaitzek bere garaian bildutakoak eta koruko familietako orri zaharretan topatutako koplak zaharrak. Zaharrak eta ezetuten ez genduzan batzuk be sartzea zan gauzea.

Kanta bakotxean koplak bat dago, ez da ezer errepikatzen eta pieza bakotxari emon deutsagu testuinguru bat. Adibidez badago bat, bertsolariena, dala Santa Agedaren historia guztia, jaiotzetatik hil zanera arte. Beste bat da, tradizio paganotik zelan eskatuten zan dirua edo jakiak, farolillo eta mantillen elementuak... Beste batzuk erlijiosoak dira. Jesusek ura ardaotu ebala eta holangoak. Umeentzako letrak hartu genduzan graziosoak eta holan, gaika zentzu bat

emoteko.

Gero adibidez, guk kantetan dogu Santa Ageda zaharra, Santa Teresana. Eurek "zaharra" deitzean deutsie baina ez da zaharra. Santa Ageda zaharra 1975ean idatzitako partitura bat da. "Hori da Arratiako Koruko betikoa!", betikoa ez! 1951n ez zan existiduten, gu zaharagoak gara! Askotan esaten dira holakoak baina betikoa... ez da ezer be ez, ze ez dakigu. Holan, zaharra deskubridu genduzan ez zala betikoa, koplak gehiago egorzala. Sartu doguzanak diskoan, zaharren kasuan, izan da estrofa batzutan harmonietan barriztapen batzukaz. Bai musikan bai letretan, barrikuntzaren batez sartu doguz.

Erlijosok bai, baina zuztar paganoak be gogoratu dozuez ezta?

Bai, disko atzenengo piezea *Agategaz olgetan* da. Pieza instrumentala da, akordeoiaz eta makilakaz. Diskoak kriston kutsu erlijiosoak dauka eta nire kasuan, nire ideak ez doaz hortik. Orduan esan genduzan, ba goazen konpensezako zeozer egitera, jente guztiarentzako. Ze badago jentea ez dauana sinisten eta dana bildu gura dogu. Nik nire beste fazeta baten asko inprobisetan dot eta holako gauza arraroak egiten dodaz. Pentsau neban mundu horretako zeozer diskoan sartzea.

Egin genduana izan zan, Gabonetan batu Simon Arriola perkusionista, Larraitx Navas nire ahiztea makilakaz eta ni akordeoiaz, Zeanuriko eleizan. Han egon ginan goiz oso bat inprobisetan, Agate Deunaren melodiak eta eritmoak hartuta eta makilakaz egin ahal ziran kolpe motak hartzean. Ma-

Santa Ageda zaharra 1975ean idatzitako partitura bat da. "Hori da Arratiako Koruko betikoa!", betikoa ez! 1951n ez zan existiduten, gu zaharagoak gara!



Santa Ageda hortik dator atzenez, hemen bizi ziran baserriar pagano jentil horreetatik bihurtuten joan da, sinkretismoagaz eleizan sartu zan baina atzenez, gauzea da herrikoia dala eta listo;



kilea eskaileratik behera botaten, aulki eta barandetan jotzen... soinu desbardinak ateraten. Ze makilearen funtzinoa zan lurra izartutea, baina makilea leku askotan jo daikezu.

Adibidez kontzertuan egin genduan sarreratxoan, umeen jolasena. Izan zan ikusteko zertarako gehiago erabili ahal dan makilea; jantzatuteko, burrukarako, jolasteko... Hainbat funtzino daukaz eta pieza honetan bueltau gara giro pagano horretara eta ibili gara jolasean, melodia desbardinakaz inprobisautan. Gero nik egituratu nebazan estudioan eta lortu genduan ha maika minutuko pieza luze-luze bat. Eta diskoaren amaierara arte eusten dauanak, hori be iruntsiko dau!

Zelan hartu dau jenteak diskoa eta kontzertua?

Jo ba nik uste dot jenteak ez ebalu espero hain kontzertu luze eta landua. Atzenez esaten dabe, ba "Arratiako Korua beti bardina, kanta bi eta badoaz". Gura genduan Areatzan erakutsi zergaitik egiten doguzan hainbeste entsegu, ze egia

esan kanta asko daukaguz. Zortzi Agate Deuna dira, gero afinetako gatzak diranak... Gehiena egiten dogu a *capella* kantau, akonpainamentu barik, eta hori oso gatxa da alfabetizauta ez dagoan jenterentzako.

Mantenidu behar da afinazinoa, *tempo*-a... Nik uste dot kontzertua opari bat izan zala jentearentzako, baina guretzako be bai. Ikustea kantau ahal dogula ordu eta laurden, dana segiduan eta gainera, hari bategaz, testu desbardinakaz... Agate Deunari kritikak botaten be bai, sinkretismoa. Zergaitik santua, zergaitik martiria, sufrimentua? Testuakaz ikutu moderno bat emotea eta beste hausnarketa batzuk egitea.

Umeen kasuan, joko moduan planteau genduan hasikerako antzerkiagaz eta sinboloakaz jolastuta. Holan makilak publikoaren artean banatu genduzan eta zapiak eta txapelak eskegi ziran makiletatik, eurei be beste ikuspuntu bat emoteko. Nik uste dot kontzertua biribila izan zala, zentzu guztietan, baina ez bakarrik jentearentzako,

guretzako be. Probetako profesional moduan be egin ahal dogula, eta horretarako ikasten dogula.

Jenteak esan deusku be bai, ze ondo kantetan dogun. Ez dakit ze idea eukingo eben! "Ze profesionala, zenbat lan... Bilboko koru bat emoten dozue...". Nik uste dot pentsau ebela apur bat aspergarria edo izango zala ze klaro, zortzi Santa Ageda dira. Saiatu ginan arina egiten eta nik pentsau lortu genduala. Eleiezia hankaz gora ipini genduan! Oso oso pozik baina peneagaz, ze esfortzu handia izan da. Oin abinentzia sindromea daukat.

Zelan sentidu zarie zuok ba, kontzertuaren ostean?

Ba penea. Bat bakarrik izan da-ta. Esan deustie ia zergaitik ez dogun bat Zeanurin egiten. Ikusiko dogu, ondo egongo zan ze lan asko izan da baina egia da, Areatza eta Zeanuri alboan dagozala eta jente bardina dala. Plana ez da nazkatutea bez. Baina gure aldetik super pozik eta errealizauta. Ez genduan espero eutsi eta hain ondo ur-

tengo zanik. Urduri egozan baina eutsi eben eta ni oso pozik nago, eurretaz oso harro. Zelan mantenidu eben afinazinoa, kontzentrazinoa... Jentea dago nahiko nagusia dana eta ostras, konplikadua da hor zutunik eta ordu eta piku egotea. Ezin hobeto urten zan eta eurataz super harro nago.

Kontzertuko ze momentu azpimarratuko zenduzan?

Ba batetik hasikerea, ze oso urduri gengoan eta beti pasetan da zezer. Bat-batean makila pilo bat desagertu ziran. Bost minutu lehenago umeak etorri jatazan banatuteko beste makilarik ez egoala esaten. Eta aterkiakaz urten behar izan ziran, makila bigaz zirkuluan jotzen eta batzuk aterkiakaz.

Gero, ez neban espero amaierakoa. Lore sorta emon eustien, eta Xabi Goioagaren diskursoa negar baten... Niretzako oso berezia izan zan, asko maite dodaz. Ez neban diskurso hori espero eta badakit berak oso txarto pasau ebala eta berarentzako irakurtea erronka izan zala. Negar baten hasi zan eta amai-

tu zanean kriston eztanda bat izan zan. Eskerrak danentzako, pilo bat dira eta besarkada asko falta jataz.

Hasikerea eta bukaerea holan, baina erdian be bai... Batzutan gertatuten dana da, nerbioakaz ez zagozala momentua biziten; baina uste dot lortu genduala.

Oin emoten dau indartsu zagoziela, helduko da korua 100. urteurrenera?

Ba nik baietz uste dot, holango osasunagaz eta gazte gehiago engainetan badoguz... Oin igual gazteentzako, ikusten dabenean Santa Agedaz gainera bidaiak, kontzertuak eta abar egiten doguzala motibagarri eta erakargarriagoa izango da. Ikusten dabenean eleizako inguruntetik urtetan garela eta erlijinotik kanpo be gauzak egiten doguzala... Erakargarria dala pentsetan dot eta Santa Ageda hortik dator atzenez, hemen bizi ziran baserriar pagano jentil horreetatik bihurtuten joan da, sinkretismoagaz eleizan sartu zan baina atzenez, gauzea da herrikoia dala eta listo.

| | | | |
|--|---|---|--|
| | JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa | Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea | |
| | Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima | Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre | |
| | Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio | Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza | |
| | Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri | I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre | |

LASTERKETEAK

Dime Galapan II.ak kirola, omenaldia eta giro aparta batu zituan



Erredakzioa

Aprilaren 17an egin zan II. Dime Galapan, eskolatik sortutako ekimena. Arrastiko 17:00etan hasi zan adin guztietarako herri lasterketeagaz eta frontoi inguru jentez bete zan parte-hartzaile eta familiakaz.

Lasterketea hasi aurretik, une berezi bat bizi izan zan frontoi txiki parean: Lur Ziarrusta eta Amaia Aldai pelotari dimoztarrak omendu ebazan antolakuntzeak, Argentinan jokatu zan Munduko Txapelke-

tatik dominakaz eta selekzino irabazle moduan buelta dirala aprobetxautu.

Ekitaldi labur eta xumea izan zan, baina aldi berean hunkigarria eta berezia. Omenaldian, eskerron beroa adierazo eben pelotariak eta lasterketeari hasikerea emoteko zintea mozteko ohorea be eurek izan eben, keinu sinboliko polit baten. Behin lasterketak amaituta, arrastiak jarraipena euki eban taillerakaz, eta eguna biribiltzeko, ipuin musikatuak amaiera goxo eman eutsan gitaruari.

BOLA-JOKOAK

Izkander Barrenetxea eta Imanol Artabe txapeldun Binakako Bola Txapelketan

Aprilaren 18an eta 19an jokatu zan Lemoako bolalekuan Arratiako Binakako Bola Txapelketea.

Erredakzioa

Izkander Barrenetxea eta Imanol Artabe Lemoa taldeko bikotea izan zan txapelduna, 788 puntu eskuratuta. Bigarren sailkatu ziran Done Intxausti eta Iñaki Arrate, Elorriaga taldekoak, 751 puntugaz; eta hirugarren Jose Luis Arrizabalaga eta Salva Lopez, San Kristobal taldekoak, 562 puntugaz.

Lemoako bolalekuan jokatutako finalean, banakako txapelketan legez, argi geratu zan Arratian bola-jokoak daukan zaletasuna.

Arratiako Banakako eta Binakako Bola Txapelketak Lemoan jokatu ostean, aprilaren 25ean jokatu zan Aroztegiatan Arratiako Komarkaleko Bola Txapelketako bigarren jardunaldia.

Bardinketea emon zan lehen postuan, Bargondiak eta Zeanurik puntu bardinak lortuta: 610. Hirugarren San Kristobal izan zan 579 puntugaz; laugarren Oba, 537gaz; bosgarren Lemoa, 534 puntugaz; eta seigarren Elorriaga, 520gaz.

Sailkapen orokorra, jardunaldi biren ostean, holan dago:

| | |
|------------------|-------|
| 1. Zeanuri | 1.149 |
| 2. Lemoa | 1.059 |
| 3. Bargondia | 1.041 |
| 4. Elorriaga | 1.035 |
| 5. Oba | 1.023 |
| 6. San Kristobal | 1.019 |

Komarkaleko hirugarren tiraldia Bargondian jokatuko da maiatzaren 9an, arrastiko 16:30etik aurrera. Hasikera baten Oban zan jokatzekoa, baina aldaketea egin dabe.

LASTERKETEAK

Bizkaiko oinarrizko kirola babesteagaitik saritu dabe Gorbeia Suzien

Jurek Ziemkiewicz: "Atzenean hau errekonozimentu bat da, ez atzen urtean egindakoagaitik, urte luzez egin dogun behar guztiagaitino baizik".

Asier Abrisketa

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimenez, aprilaren 13an ospatu zan Bizkaia Kirolak 2026 Sariak-en ekitaldia, Elixabete Etxanobe Bizkaiko Ahaldu Nagusiak eta Leixuri Arrizabalaga Euskara, Kultura eta Kirol diputaduak burututa. Sario-tan, Bizkaiko oinarrizko kirola babestuten dabezan kirolari, teknikari, erakunde eta ekitaldiak sarituten dira eta aurtengo edizinoan, bereziki "bizitzaren etapa guztietan kirola sustatzeko apustu egin dabenei" eskainitakoa izan da.

Ekitaldiko hamar sarituen artean, Gorbeia Suzien mendilasterketa zeanuriztarreko antolatzaileek protagonismo berezia izan eben. Izan be, aurtan Bizkaia Kirolaren Europako Lurraldearen izenda-

pena dauka eta Kirolur 2026 kanpainearen barruan, Kirolur sari espezifikoa sortu da, Gorbeia Suzien-ek irabazi dauana. Jurek Ziemkiewicz Gorbeia Suzien-eko zuzendariak, BFA eskertu dau BEGITUN: "Atzenean hau errekonozimentu bat da,

ez atzen urtean egindakoagaitik, urte luzez egin dogun behar guztiagaitino baizik". Zuzendariagaz batera, Anton Zuluaga, Aitor Arbulu, Jabitu Urutxurtu, Batirtze Larrakoetxea, Xabi Kantsau eta Amaia Velar egon ziran ekitaldian.



MOTORRA

Laugarrenez egingo da Dimako Cross Country lasterketea

110 bat parte-hartzaile eta 4-5 andra espero dira: "la bostak inskribiduten diran eta hemendik aurrera gorantza goazen!".



Argazkia: Moran Racing Fotografia.

Asier Abrisketa

Maiatzaren 9an Dima motorzaileek hartuko dabe beste urte batez, Moto Club Dimak antolatutako IV. Cross Country motor

lasterketea dala-ta. Lasterketea 15:30ean hasiko da. Moto Club Dimako Joana Kamiruegak BEGITUN aurreratu dauanez, pasau dan edizinoko ibilbidea-bera izango da, bederatzi

eta hamar kilometro artekoa, baina zati bat kenduta, basoko lanak dirala-ta. Zatik interesgarrienak, herriatik hur egongo dan "trialera" igokera bat eta eleizatik gora egongo diran enborrak izango dira. Gidarien helburua, ordu bitan ahalik eta buelta gehien emotea izango da.

Izen-emotea zabalik dago maiatzaren 6ra arte, eta 7an 10 euro gehiago ordainduta, fvm.es webgunean. Joana Kamiruegak azaldu dauanez, aurreko urteko antzeko parte-hartzea espero da, 110 gidari inguru. Halanda be, pasau dan urtean neska bi bakarrik -Irene Beraza eta June Lopez- egon ziran eta aurtan izena lauzpabost andrak emotea aurreikusten dabe: "Cross Country honetan andrak eta motoziklistak buztartu gura dira eta neska gehiago batzeako ahaleginean gabiz, kartelean egin deutsegu keinu eta egunean bertan be kontuan hartuko doguz".

FUTBOLA

Arratia A taldeak 4-0 irabazi dau igoera promozinoko lehen partidua

Aprilaren 26an Real Sociedad C taldearen kontra irabazita eta horri esker ligoa irabazi ostean 2. RFEF Mailara igoteko lehen partidua irabazi dau andrazkoen Arratia Ak Pradejon taldearen kontra.



Erredakzioa

Realaren kontrako partiduan lez giro itzela egoan Urbietan maiatzaren 2ko arrastian, Arratiak deialdia egin eban barriro jentea futbol zelaira hurreratzeko eskatzen eta erantzuna itzela izan zan. Realaren kontrako partiduan baino zale gehiago batu ziran, 700 inguru.

Partiduari jagokonez Arratia Ak Errioxako Pradejon taldearen kontra jokatu eban eta 4-0 irabazi eban. Partidu hasieran errioxarrak indartsu atera ziran zelaira baina 11. minutuan Irati Artaraz bediazarrak bat eta hutsekoa sartu eban. Bigarrena Amaia Alzagak sartu eban 33. minutuan eta holan heldu ziran atsedenaldira. Bigarren zatiko hamabigarren minutuan taldean garrantzitsuak diran jokalar bi, Olaitz Arroyo igorretarra eta Itsaso Kumi, atera ziran zelaira eta Arroyok urten eta ia segiduan arratiarren hirugarrena egin eban. Emaizta biribiltzeko Itsaso Kumik laugarrena sartu

eban Arroyo eta bere arteko jokaldi bategaz 70. minutuan.

Partidu ostean, bai partiduan bai denporaldian zehar lan itzela egin dauan Nerea Beitia kapitainagaz egon zan BEGITU, eta hauxe adierazo eban: "Fisikoki talde gogorra zala jakin dogu, dueluetan sano indartsuak. Lehenengo minutuetan indartsu hasi dira, baina guk goiz sartu dogu gola, eta horrek konfiantza handia emon deusku. Hortik aurrera zelaiaren hobeto sentitzen hasi gara eta bigarrena be sartu dogu. Amaierara arte partidua menperatu dogu, gainera atea hutsean mantentzea lortu dogu, eta hori klabea da. Halanda be, oindino beste 90 minutu geratzen jakuz, eta emaitza oso ona izan arren, argi daukagu hangoa partidu gogorra izango dala. Gaur egon dan giroa be ezin hobea izan da, eta espero dogu han be holan izatea. Zorritzarrez, ordutegiak ez dau laguntzen, baina seguru lgorretik eta Arratiatik be animoak eta indarrak helduko jakuzala; bai-

na, animau etorten!".

Bueltako partidua Pradejonen jokatu dau Arratia Ak maiatzaren 10ean, domekea, arrastiko 18:00etan. Arratia taldeak autobusak ipiniko ditu doban zaleak joan ahal izateko.

Gazte Mailako Arratia Ak igotzea lortu dau

Gizonezkoen Gazte Mailako Arratia A taldeak kategoriaz igotzea lortu dau Tolosaren kontra 1-3 irabazita. Oroitz Villenak gol bi sartu ebazan (31 daroaz guztira), eta garaipen horregaz matematikoki igoera ziurtatu dabe, ligan hirugarren postuan dagoz 58 puntugaz. Lehen sailkatu biak filialak diranez, ezin dabe igon, eta Arratiak aprobezta dau aukerea. Taldeak laugarrenez igon dau mailaz jarraian, eta datorren denporaldian Ohorezko Nazional Ligan jokatu dau. Tolosan zale ugari egon ziran taldea animetan, autobus beteta joan zan eta beste asko euren kontura joan ziran. Giro aparta sortu zan harmailetan. Igoera giro bikainean ospatu eban, bai han eta baita Igorren be.

Andrazkoen Arratia Bk promozinoa jokatu dau

Gizonezkoen Arratia A eta B, andrazkoen Arratia B eta Lemoako Harrobi taldeen informazioa eta zehaztasunak begitu.eus webgunean dagoz eskegita. Andrazkoen Arratia B taldeak bigarren postua lortu dau matematikoki eta Euskal Ligara igoteko promozinoa jokatu dau.

PELOTEA

Xabier Rekalde finalaurrekoetan, Agirrerren lesinoa dala-ta

Maiatzaren 15ean Irunen jokatu dau Amianoren kontrako partidua.

Asier Abrisketa

Xabi Rekalde pelotari dimoztarrera bere hirugarren txapelketea dabil jokatu profesional moduan, Buruz Buruko B Serieko Txapelketea eta maiatzaren

15ean, finalerako txartela izango dau jokoan Irunen. 20:45etik aurrera jokatu dira finalaurreko biak; Rekalde eta Unai Amiano batetik, eta bestetik Unai Alberdi eta Iraitz Zubizarreta edo Ander Murua. Rekalde ligaxkako atzen

partidua jokatu barik sailkatu da, Asier Agirre lesionauta egon dalako.

Ligaxkan partidu bi jokatu ditu dimoztarrak. Lehenengoan 22-15 irabazi eban Unai Alberdiaren kontra eta bigarrenean, 22-

PELOTEA

Trinketeko lehen mailako azpitxapelduna izan da Ekhi Ziarrusta

Txapelketara ordezeko moduan ailegau arren, atzenera arte bururatu eta partidu ikusgarria eskaini eban bizkaitarrek Baionan.

Asier Abrisketa

Ekhi Ziarrusta dimoztarrak bigarren mailan jokatu behar baeban be, ordezeko moduan sartu zan Algortako Inhar Ugartegaz trinketeko Elite Pro A mailan eta txapelketan pausuz pausu aurrera egin ostean heldu zan bikote bizkaitarra finalera. Aprilaren 26an jokatu eban finala Baionan, egungo trinketeko jaun eta jaube diran Battitta Ducassou eta Iker Espinalen kontra eta bizkaitarrek 29-40 galdu baeben be, partidu ikusgarri eta lehiatua eskaini eban, Dima eta Algortatik urtendako autobus bietako zaleen animoek lagunduta.

Partidua amaitu barritan eta izerdia bekokian, Ziarrusta lortutakoagaz pozik agertu zan BEGITUN egindako adierazpenean: "Hau da pentsauta ekarri

doguna, penea tantu alde handia euki dabela eta gatx egon da bueltea emotea". Izan be, Ducassou eta Espinallek hamar tantu inguruko aldea mantendu eban ia partidu osoan, erdipartean Ziarrusta eta Ugarte bost tantutara ipini baziran be, zale bizkaitarrak hankaz gora ipinita. "Jenteari gustetan jako daukagun jarrerea, atzetik joan arren atzenera arte segiduten dogu; hori erakutsi behar da, hori da gure balore handiena", inoan dimoztarrak.

Partiduez gainera, Ziarrusta sano eskertuta agertu zan sortu zan giroagaz. Izan be, mila ikusle egon baziran be, Bizkaitik autobus bitan joandako 100dik gora personen animoak izan ziran nagusi trinketeen. "Jeneralean gitxiago izanda be zarata gehiago ateraten dogu", inoan Ziarrustak barrezka.



15 galdu eban Julen Eigurenen kontra. Rekaldek BEGITUN kontau ebanez, Dimakoa ondo hasi zan baina Eiguren V.-ak bueltea emon eutsan partiduari. Halanda be, behar ebazan gitxieneko

15 tantuak lortuta, sailkatuteko aukerea mantendu eban. Halanda be, Agirre lesionauta, maiatzaren 1ean jokatu behar zan partidua 22-0 moduan emon jakon Rekalderi.



● ZINEKLUBA

Levan Akinen *Crossing* proiektuak da Igorreko Zineklubean

Maiatzaren 13an, 20:00etan egingo da proiektuak eta solasalditxo Lasarte Aretoan.

Asier Abrisketa

Maiatzeko Igorreko Zineklub saioa hilaren 13an egingo da eta bertan, Levan Akin zuzendari suediarren 2024ko *Crossing* izango da lan-gaia. Transexualitatea eta familia harremanak hartzean ditu ardatz moduan drama honek eta bidaia bat kontetan dau, Georgiatik Istanbulera. Suediako zinema akademiaren film sarituenetakoa izan zan 2025eko jaialdian, sari laukotzagaz: film onena, zuzendari onena, foto-

grafia onena eta soinu onena.

Protagonistea, Lia, 72 urteko historia irakasle erretiratu da eta Georgian bizi da. Bere helburua Tekla iloba topetea da, herritik aspaldi joan zana, eta bilaketa horrek Istanbulera eroango dau Lia. Bidean Achi gaztea, beragaz Istanbulera joan gura dauan ikasle ohi baten anaia, eta Evrim, transexualen aldeko burrukan dabilen abogadua topaiko ditu. Holan, Tekla gero eta hurrago sentiduko dau Liak.



● LITERATUREA

Mikel Pagadi egongo da maiatzeko Arteako Irakurleen txokoan

Bere lehen eleberria, *Bisita*, izango da langaia hilaren 8an.

Asier Abrisketa

Mikel Pagadizabal Amiano (Villabona, 1974) aurkezleak 2024an argitaratu eban bere lehenengo eleberria, *Bisita*. Zientzia fikzioa, fantasia eta umorea buztartuta, satira politiko bat da nobelea, euskal gizarteari kritika soziala egiteko estralurtarrak baliatzen dauzana. Pagadik berak aurkeztuko dau liburua Artean maiatzaren 8an, 19:00etan Kultur Etxean, eta Alaine Agirrek dinamizatuko dau saioa.

"Plater hegalari bat heldu da Lur planetara, estralurtarrak etorri dira gugana, baina ez dabe lur hartu ez Dakotan ez Minnesotan,

baizik eta Euskal Herrian; zehazkiago, Anoeta herriko baseri biren arteko solan. Mundu osoa aztoratuko dau gertakari horrek, baina batez be bertakoak: Zer da objektu hegalari ezezagun hori? Nondik dator? Zer gura dabe? Zer egingo dogu?", dino sinopsiak.



● ONDAREA

Areatza musika eta jantzez beteko dau Aikok bagilean

Arratiako Ondare Astegoiena izenpean, jantzen gaineko ikastaro ugari egingo dira bagilaren 27 eta 28an.

Asier Abrisketa

Aiko Kultur Elkarteak, Areatzako Udalaren laguntzeagaz, Arratiako Ondare Astegoiena ekimena antolatu dau, bagilaren 27 eta 28an Areatzan egingo dana. Ondare ez-materiala eta honen transmisioa izango dira jardunaldien ardatzak: "Gure kultura partekatuen adierazpen bizia, komunitatea lotzean dauana eta belaunaldi belaunaldi transmitiduten dana". Ondarea erakusteko bakarrik ez, bizi, partekatu eta transmitiduteko dala sinistuta, jantzen gaineko ikastaro eta jarduerak ugari antolatu ditue.

Tailerrak, emonaldiak, errome-

riak eta topaketak egingo dira eta daborduko, izen-emotea badago zabalik *aiko.eus* webgunean. Plaza mugatuak dira eta ikastaro guztietan parte hartzeako matrikuleak 60 euroko kostua dauka. Ha-ta guztiz be, eta transmisioan eragiteko helburuagaz, Aikok doban eskainiko ditu ikastaroak 18 eta



● MUSIKEA

Musika Eskolako matrikulazioa zabalik

Asier Abrisketa

Arratiako Musika Eskoleak zabaldu dau 2026-2027 ikasturtera begirako matrikulazioa. AMEk eskaintza zabala eskaintzen dau klase desbardinetan, barbarako musikearen has-tapena, musika-hizkuntzea, kantua, instrumentu ugari eta musika taldeetan parte hartzeako aukerea. Holan, lau urtetik gorakoak zein helduak animau gura dabez izena emotera. Izena maiatzean zehar emon ahal izango da, <https://interklabe.com/arratiakomusikaeskola/> webgunean. Zalantzarik izan ezker, 94 631 73 52 telefonora deitu daiteke, aste-lehen eta eguaztenetan 10:00etatik 13:00etara eta martitzen eta egue-netan 12:00etatik 15:00etara.

AMEk hiru klase mota emoten ditu. 4-7 urte bitartekoentzako, musika jolasen bitartez ezetuteko klaseak emoten dira, belaria eta erritmoa espermentazio libre eta presino barik garatuteko. Zortzi urtetik aurrerako umeentzako bariz, ikasketea osotuagoa da, musika-hizkuntzea eta instrumentuak buztartuaz; teknika bakarrik ez, alderdi soziala be lantzean da herrietako konboetan, abesbatzan eta Gorbeia Ensemble taldean. Heldu hasibari-entzako bariz, teoria apurka ikasten da, instrumentua jo bitartean eta Itxi-na Ensemble edo pandero taldeetan parte hartzeako aukerea dago.

● KARTEL LEHIAKETA

Badago Igorreko jaietarako kartel irabazlea!

LH 5. mailako lau umek eskuz egindako kartela izan da boto gehien lortu dituan proposamena.

Asier Abrisketa

Bagilaren 5etik 14ra ospatuko dira Igorreko sanantonioak, hilete baina ez da faltau, eta berotuten hasteko lehenengo pausua emon dau Jai Batzordeak. Igorreko jaietarako kartel proposamenak Kultur Etxean egon dira aprilean eta jentek aurkeztutako hamarren artean bozkatu ostean, eskuz egindako bakarra izan da irabazlea. LH 5. mailako Jon Fernandez Perez, Araia Revuelta Zurinaga, Irati Ercilla Vegas eta Laida Etxebarria Garcia izan dira kartel irabazlearen egileak eta aurtengo jaieta-

rako euskerearen aldarrikapena egin dabe umeek.



30 urte bitarteko gazteentzako.

Egitaraua

Bagilak 27, zapatua

10:00etan, *Jota Galiziatik* (Sergio Cobos).

11:30ean, *Jota eta fandangoaren estandarizazioa* (Patxi Laborda).

17:00etan, Fuente Alamoko bole-ro eskolea (Pedro Jose Leandro).

18:30ean, *Erregelak: dantzaria eta musikaria jolasean, elkarren atzetik eta elkarri tiraka* (Luken Aranburu).

22:30ean, afalosteko jantzaldi erromeria Aikopekogaz.

Bagilak 28, domekea

10:00etan, *Tangoa Euskal Herrian* (Ines Uriarte).

11:00etan, *Arratiako Artexeren jota* (Larraitx Artetxe eta Sabin Bikandi).

● IKUSKIZUNA

Korrontziren musikeagaz egingo dabe jantzan Arantzartekoek Igorren

Maiatzaren 16an izango da Korrontziren *Mundua dantzan* emonaldi birako saioa.

Asier Abrisketa

Euskal musika tradizionalari gaurko ikuspuntuagaz jantzen dauan Korrontzi musika taldeak oin hamar urte hasi eban Korrontzi Dantzan proiektua, lekuan lekuko jantza taldeak alkarlanean. Urteurren biribila dala-ta, *Mundua dantzan* biera ipini dabe martxan eta egingo diran 50 emonaldien artean, Arantzarte eta Oinkari jantza taldekoak egongo dira Igorreko Lasarte Aretoan, maiatzaren 16an 20:00etan.

Emonaldia antolatuteko, Villabonako (Gipuzkoa) Oinkari jantza taldeak sortu dauz Korrontziren abestientzako koreografiak eta gero, bertako jantzariak izan dira koreografiok herriz herri eta taldez talde eroan dabezanak.

Horrezaz gainera, Korrontziren biera 2027ko martiaren 13an amaituko da, 51. emonaldi erraldoi batez. Bertan, ehun jantza talde eta 1.200 jantzari inguru egongo dira Korrontziren musikearen bueltan jantzan, tartean Arantzarteko jantzariak.

Tenerifeko folklorea udan

Aurten be, Arantzartek alkartrukea antolatu dau Tenerifeko jantzariak. Oin urte pare bat Guarache taldeagaz egin eban modura, oingoan Agrupación Folclórica El Moraleko jantzariak egongo dira garagarrilean. El Moralekoak garagarrilaren 8tik 12ra egongo dira Arratian eta 11n, zapatua, jantzaldia eskainiko dabe San Kristobaleko jaietan. Gero, hile amaieran, Arantzartekoak izango dira Tenerifera bidaiatuko dabenak.



● BAKARRIZKETE

Jon Plazaolak aitatasunaren gaineko umorezko bakarrizketea dakar Igorrera

Maiatzaren 8an, 20:00etan egingo dau aktore eta umoregileak AA *Aita* bakarrizketea.



Asier Abrisketa

Jon Plazaolak (Urretxu, 1982) lehen semea jaiotako jarraian estreinau eban *Tu-Tum, Platz!* bakarrizketea eta urte biko bira arrakastatsuen ostean eta semea gehiago hazita, aitatasuna hartu dau barri ardatz moduan AA *Aita* bakarrizketarako. Hau Igorreko Lasarte Aretoan taularatu dau Plazaolak, hilaren 8an,

20:00etatik aurrera.

Aktore eta umoregileak urte bi honeetan aitatasunak emon deutsan dana publikoagaz alkarbanatu gura dau bakarrizketa barri honez: "Esperientzia onak alkarbanatu eta funtsezkoena: oinazea monetizatu". Holan, aitatasuna norbere patetismo eta ergelkeriaz berba egiteko atxakia izango da, baina batez be, gainontzekoen patetismo eta ergelkerian sakonduteko.

DUNBA

Hartza izartu gendunekoa

Arteako 4. mailako ikasleak

Pasau dan zezeilaren 13an, barrikuz, Arteako eskolan hartza izartu genduan. Egun osoko ospakizuna egin genduan hartza izartuteko eta udabariari ondoetoria emoteko. Makilkadaz makilkada har-

tza izartu eta udabarria loratzeko aukerea izan genduan, iluntasuna atzean itxi eta argitasunari lekua emoteko.

Euskal Herriko Aratusteetako personaia desbardinak; txatxoak, Miel Otxin, atorrak eta lamiak, Markitos, sorginak eta momotxorroak,



zanpantzarrak eta mamoxarroak, Hartza, akerrak, Zaldiko, surrondiak eta kotilungorriak... Danok urten genduan goizean goiz kalejirara. Herriko txoko desbardinak busti genduzan musika eta jantzeagaz herria esnatzen genduan bitartean. Eguraldia be lagun izan genduan eta zorionez ez genduzan gure mozorroak izorratu.

Goizean zehar, Aratusteetako tostadak jateko aukerea be izan

genduan, eskolan bertan egingakoak, gainera! Arrastian barriz, gurasoentzako emonaldia presatatu genduan Arteako ikasleok. Ordubetean zehar, musikeak eta jantzek girotu eban gure eskola txikia eta irakasleen eta gurasoen jantzakaz amaitu zan emonaldia. Honen ostean, frontoian txokolate beroa probetako aukerea euki genduan, kanpoan egoan hotza berotzeko. Arrastian zehar,



Arteako Kokomarroek antolatuta, plazan emon jakon bukaerea Aratusteetako barikuari, kokomarroen jantza suaren inguruan eginaz.



● AGENDEA

**MAIATZAK 4
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

08:00etatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

Arratiako Ondare Astegoienean (bagilak 27 eta 28), Aikoren jantza ikastaroetarako izen-emotea aiko.eus webgunean.

Maiatzaren 13ra arte, Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peñaren Batzar Orokor eguneko bazkairako izen-emotea, 691 529 748 (Iker Zamakona).

AREATZA/IGORRE/LEMOA

Zure herria Bizkaiko herriak aktiboena izateko Kirolur 2026 Erronka martxan. Zure herria, Bizkaiko gainontzekoen aurka. Sariak dagoz jokoan eta irabazi ezker, herriko kirol taldeentzako materiala lortuko da. Promozinoko bideoa: <https://youtu.be/xDxbQY3EAs>. Zalantzarik izan ezker tutoriala: https://youtu.be/_wGvUh_GFRY. 1-. Deskargatu Wellk App-a: <https://onelink.to/ncpuy>; 2-. Emon izena eta hautatu zure herriko taldea; 3-. Hasi puntuak batzean kilometro aktiboak eginaz apirilaren 15etik aurrera.

ARRATIA

Maiatzaren 16an izango da Udaleri Euskaldunen Eguna, Obxandion. UEMAko kide diran 120 udaleriek ez ezik, gainerako udaleri euskaldunek be hartzean dabe parte eta labur.eus/UEE26 helbidean dagoz egunari buruzko informazio osoa, bazkaltzeko txartelak erosteko gunea eta beste hainbat kontu.

Maiatzaren 6ra arte, Arratiako Guraso Elkarteen Topaketako (maiatzak 10 Diman) bazkairako txartelak salgai; umeek 6 euro eta helduek 10. Lemoako jubiladuetan eta Abxetan, Igorreko Gau Loran, Dimako Axlorren, Arteako Herriko Bentan, Areatzako Hagina eta Aldaminen eta Zeanuriko Sagama eta jubiladuetan.

Arratiako Musika Eskolearen 2026-2027 ikasturterako matrikulazioa zabalik. Izena maiatzaren 3qra arte emon ahal izango da, <https://interkabe.com/arratiakomusikaeskola/> webgunean. Zalantzarik izan ezker, 94 631 73 52 telefonora deitu, astelehen eta eguaztenetan 10:00etatik 13:00etara eta martitzen eta eguaztenetan 12:00etatik 15:00etara.

ARTEA

Jaietako Kartel Lehiaketeta. 16 urtetik gorako herritarrentzat. Kartelak "Arteko jaiak 2026" jaso behar dau eta DIN A4 (digitalean zein fisikoan) aurkeztu behar da. Teknika libre. Lanak udaletxean aurkezteko atzen eguna: bagilak 3. Irabazleak aukeratzeko bagilaren 19an (barikua), 17:00-20:00, plazan botoa emotea.

BEDIA

16:30etik 19:30era, informazio gunea eta liburutegia astelehenetik barikura zabalik. Izen-emoteak bertan.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik egunero liburutegia zabalik.

Maiatzaren 11ko Irakurketa Talde Feministan izena emoteko atzen eguna. Udaletxean.

Maiatzaren 8ra arte, udalekuan izena emoteko epea. Ludotekan (maiatzak 4 eta 5 16:30etik 18:30era) eta <https://labur.eus/udalekuakdima2026> galdetegiaren.

IGORRE

08:00etatik 22:00etara, ikasgela egunero

zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik egunero 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

Maiatzaren 14an NAN-a edo pasaporteia izapidetzeko zitak eskatzeko aukerea zabalik. 09:00etatik 13:00etara 94 685 25 16 telefonoan.

Maiatzaren 7ra arte, Axular Herriko Tabernako akuarela tailerren izena emoteko epea zabalik, 20 €.

Maiatzaren 12an egingo dan Berbalagun taldeak antolatutako *Sendabelarren ezagutza eta erabilera: ukenduak egiteko tailerra*-rako izen-emotea arratia_berba@aekeus helbidean.

Arratia futbol taldean 2008 eta 2021 urteen artean jaietakoentzako izen-emotea zabalik maiatzaren 29ra arte. Klubeko bulegora hurbilduta edo <https://labur.eus/arratia26> estekaren bidez. Bulegoaren ordutegia: astelehena eta martitzena: 10:00-12:00; eguaztena: 16:00-18:00; eguna: 18:00-19:00 eta barikua: 16:00-18:00.

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura Udaleri Liburutegia zabalik.

Maiatzaren 7 eta 21ean eta bagilaren 4 eta 18an izango dan Iratxe Etxebarriaren *Bizirik Bizi: auto-ezagutzatik elkar-zaintzara* ikastaroan izena-emoteko atzen eguna. Izena bardintasuna@arratia.eus helbidean emon behar da. Hautzaindegi zerbitzua behar izan ezker ludoteka zerbitzua dago. Informazio gehiago bardintasuna@arratia.eus helbidean edo 688 627 393 telefonoan.

Lemoako Harrobin 2008 eta 2021 urteen artean jaietakoentzako izen-emotea <https://labur.eus/lemoakoharrobi26> galdetegiaren.

Maiatzaren 29ra arte, Jaietako Kartel Lehiaketan parte-hartzeako epea zabalik. Udaletxean, 08:00etatik 14:00etara.

UBIDE

08:00etatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

Dorsalak amaitu arte, maiatzaren 30ean jokatuko dan Ubidestro Trail 2026an izen-

emotea zabalik kronoak.com webgunean.

ZEANURI

Batxil eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00etatik 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik egunero 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehen, martitzen eta eguazten liburutegia zabalik.

**MAIATZAK 5
BEDIA**

18:00etan, Eleizalde jubiladu eta pensionisten alkarreak antolatutako *Nola bizi luzarago eta baldintza hobeean* berbaldua. Eskolan.

Maiatzaren 8ra arte, *Lettering* tailererako izen-emotea. Info gunean 16:30etik 19:30era.

**MAIATZAK 6
ARTEA**

18:00etan, jubiladuen alkarreak antolatutako *Loa* berbaldua, Alvaro Villasevil Arteako medikuagaz. Kultur Etxean.

18:00etan, Irakurleen Kluba. Liburutegian.

DIMA

18:30ean, Liburutegia diseinatu eta herriko espazio publikoan erabilera birpentsetako parte-hartze prozesuaren batzara. Liburutegian.

**MAIATZAK 7
IGORRE**

19:00etan, Musika kalean Eingo taldeagaz. Gau Lora tabernan.

LEMOA

17:30etik 19:00etara, Iratxe Etxebarriaren *Bizirik Bizi: auto-ezagutzatik elkar-zaintzara* ikastaroa. Kotxepin Kultur Etxeko Aramotz gelan. Hautzaindegi zerbitzua dago.

Kultura eta Memoria. 19:00etan, Garikoitz Goikoetxearen *Esnatu ala hil* liburuaren aurkezpena. Kotxepin Kultur Etxean.

**MAIATZAK 8
AREATZA**

17:30ean, Kintoen Eguna antolatuzeko eta ekintzak adostuteko batzara. Udaletxean.

ARTEA

Irakurleen txokoa. 19:00etan, Mikel Pagadiren *Bisita* (Elkar, 2024) liburuaren lanketea,

idazleagaz eta Alaine Agirregaz. Kultur Etxean.

BEDIA

18:00etan, Jaietako Kartel Lehiaketako sari banaketeta. Eskolan.

DIMA

17:30ean, Gazte Bari jantza taldearen kalejirea. Piedadeondo egoitzatik Arratiako egoitzara.

IGORRE

20:00etan, Jon Plazaolaren *AA Aita* umorezko bakarizketea. Lasarte Aretan.

LEMOA

Kultura eta Memoria. 21:30ean, Deabru Beltzak taldearen *Su danborrak* ikuskizuna; 22:15ean, *Akelarre: marearen kontra* dokumentalaren proiektzioa. Arrabin.

**MAIATZAK 9
AREATZA**

Laminetxe Gaztearen IV. urteurrena. 12:00etan, harrera gaztearen; 12:30ean, eragile desbardinak ezetuteko ibilbidea: Areatzako Harrera Etxea, Kiñu Gazteare, Batu Elkarlaguntza Sarea, Orratzak talde feministea; 15:00etan, bazkaria; gero, bazkaloste giroa; 17:30ean, potea eta jolasak; 22:00etan, kontzertuak: Labar eta Acido folkloriko; gero, DJ Lamin.

ARTEA

Arteko Dantzari Eguna. 11:30ean, kalejirea herrian zehar; 12:00etan, jantza saioa plazan: Areatzako umeen jantza taldea, Arteko ikastaroko jantza taldea, Dimako Gazte Bari, Durangoko Kriskitin, Lemoako Durundi Bari eta Arteko Gangoni; amaieran, Arteko sokadantza.

DIMA

Dimako IV. Cross Country. 12:00etatik 13:45era, egiaztapenak; 14:15ean, *briefing*-a; 14:30ean, errekonozimientua; 15:30etik 17:30era, lasterketea; 19:00etan, sari banaketeta.

IGORRE

11:00etan, Urumako Eñaut Airtzaguenaren akuarela tailerra (izen-emotea maiatzaren 7ra arte, 20 €). Axular Herriko Tabernan.

**MAIATZAK 10
ARTEA**

09:00etan, plazan. Urtekereta Arte-Ermitabari (Errementarien museoa)-Arte. Jubiladuen alkarreak antolatuta.

DIMA

Arratiako Guraso Elkarteen V. Topaketeta. 11:30ean, ibilbidea familian: eskolatik pobingora eta Ausmendira (3,5 km); 13:30ean, herri kirolak: familiak vs. ikasleak; 14:30ean, bazkaria (txartelak salgai maiatzaren 6ra arte); 16:00etan, Aingeru Show; 16:30ean, musika ekitaldia; 18:00etan, amaierea.

12:00etatik 15:00etara, ekizileen Gardena azokea. Lamindaoko Gardena jatetxean.

IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Gangster talkia*; 19:30ean, *Una hija en Tokio*.

**MAIATZAK 11
ARTEA**

18:30ean, *Trans-formatzen* dokumentala eta berbaldua. Kultur Etxean. Naizen Elkartearen eskutik.

DIMA

Irakurketa Talde Feminista. 17:30ean, Danele Samugarteren *Beste zerbait* (Consonni, 2025) liburuaren lanketea, Alaine Agirrek gidatuta.

**MAIATZAK 12
BEDIA**

17:00etatik 19:00etara, Jone eta Jon Beringa jaietarako sortu, konpondu eta abestia egiteko tailerren lehen saioa (bigarrena maiatzaren 19an). Eskolan.

**Lemoako eskolaumeek ipuinak entzutera egingo dabe urtekeratxo**

Maiatzaren 13an, Lemoako eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleek urtekeratxo berezia egingo dabe. Ez dira heritik urtengo, Kotxepin Kultur Etxera doaz, baina hurretik be bidaiatu daitekeala ikusiko dabe umeek. Zelan? Ba literaturaren bitartez. Izan be, Dorleta Kortazar ipuin kontalaria izango dabe bertan, bere istorioak kontetako irrikitan.

Eskoriatzarrak hamar urte daroaz ipuinen gainean ikasi eta honek kontetan eta heldu, nerabe zein umeentzako ipuin kontaketa ugari egiten ditu. Oingoan, *Nahi duzu kontatzea berriz?* saioagaz egongo da Kotxepinen Eguzkitza Meabe eskolako LH 1. eta 5. maila bitarteko umeen gozamenerako.

IGORRE

18:00etan, Berbalagun taldeak antolatutako *Sendabelarren ezagutza eta erabilera: ukenduak egiteko tailerra*. Kubulu Euskaltegian.

**MAIATZAK 13
AREATZA**

19:00etan, Jai Batzordearen batzara. Udaletxean.

IGORRE

Zinekubla. 20:00etan, *Crossing* (Levan Akin, 2024) pelikulearen proiektzioa eta solasalditxo. Lasarte Aretan.

LEMOA

Kultura eta Memoria. 18:00etan eta 19:15ean, Arratiako Musika Eskolako ikasleentzako kontzertuak. Kotxepin Kultur Etxean.

**MAIATZAK 14
IGORRE**

19:00etan, musika kalean Eingo taldeagaz. Axular Herriko Tabernan.

**MAIATZAK 15
AREATZA**

19:00etatik 20:00etara, laburrean *Bolibar eraikinarren 100. urteurrena. Herriaren zerbitzura dagoen ondarea* argazki proiektzioa eta azalpena. Udaletxeko Aretan Nagusian.

ZEANURI

12:30ean, meza nagusia San Isidron; 13:15ean, Amikbar taldearen jantzaldua, herriko txistulariak; 19:00etan, Le Big Gibel Orkestra ibiltaria tabernaz taberna.

**MAIATZAK 16
AREATZA**

Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peñaren Batzar Orokorra. 11:30ean, lehen deialdia; 12:00etan, bigarren deialdia; 15:00etan, bazkaia Areatzako Bainuetxean (bazkideentzako prezioak: helduak 25 euro, umeak 15 euro); 18:30ean, 3 Killer Zombies taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

Emakumeak gailurretan. 12:00etan, Upo, Ilunbe edo Urrekoatzako gailurrean. Laminio Kirol Klubak antolatuta.

IGORRE

20:00etan, Korrontzi taldearen *Mundua dantzan* ikuskizuna. Lasarte Aretan.

LEMOA

Emakumeak gailurretan. 12:00etan, Lemoatxa edo Santiagozarreko gailurrean. Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta.

ZEANURI

10:00etatik 14:00etara, Abere, Artisanu eta Nekazal produktuen Azokea eta erakustaldiak: gaztaia egitea, kodañea pikau, ardi-moztea, Enkarrietako billano txakurrak eta artxo txuleta dastaketea; 11:00etatik 13:00etara, erakustetea Perrotokian; 12:00etan, ardi mozketara erakustaldia Mikel Etxebarriagaz; 13:00etan, abereen sari banaketeta; 17:00etan, Euskal Pilota Selekzioaren zesta-punta prestaketako partidua; 19:30ean, kantu potea Perrexilak taldeagaz; 22:30ean, erromeria Beriztu taldeagaz: 02:00etan, DJ Goxua.

ZEBERIO

Emakumeak gailurretan. 12:00etan, Mandoiako gailurrean. Austari Mendi Klubak antolatuta.

**MAIATZAK 17
ARTEA**

19:00etan, Jai Batzordearen batzara. Kultur Etxean.

IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Extinción*; 19:30ean, *La buena hija*.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

ALOKATZEKO ETXE BILA

Arratian, Igorren balitz hobeto, bere seme-alaba biakaz bizitza barri eta duin bat biziten hasi ahal izateko etxebizitza baten bila nabilen ama naz. Telefonoa: 662 312 325.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rock School. Gitarra klaseak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu 664 303 528 telefonora edo idatzi a.harillo.gracia@gmail.com helbidera.

TABERNARI EUSKALDUNEN BILA

Axular Herriko Tabernan tabernari bi behar dira astegoienetarako. Interesdunek tabernan bertan galdetu, axularke@gmail.com helbidera idatzi edo telefonoz deitu: 94 673 70 92.

BIZIKLETEA SALGAI

Umeentzat, koloretsua, Dora Exploratzailaren marrazkiekaz. Lauzpabost urteko umearentzat. Errobera txikerrak, aurrean zestillea eta atzean pelutxearentzat kutxa. Egoera eta itxura onean. Eskatu

edo ikusteko deitu: 670 825 753.
LESBIANA EDO LESBIANAGAIEN BILA

60 urtetik gorako lesbiana eta lesbianagai bila. Edadeko andrea zara eta aisialdirako edota militantziarako espazio ez-hetero baten bila zabiz? Deitu edo bialdu mezua: 608 062 592.

GARAJE-PLAZEA ALOKAIRUAN

Kotxeak sartzeko garaje-plazea alokatzen da Zeanuriko plazan, Ibarreta auzoan. Interesdunek deitu edo idatzi 634 448 820 telefonora.

BEDARRA EBAGITEKO MAKINEA SALGAI

Stihl RMA 339 makinea. Bateriaduna da, ez gasolina ezta elektrikoa. 5 urte ditu. Prezioa adostu daiteke. Telefonoa: 661 273 192.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera AA Aita bakarriketarako.

2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Korrontziren Mundua dantzan ikuskizunerako.

Ander Larrakoetxea (Zeanuri)
Marian Garai (Lemoa)



Xabier Artetxe (Igorre)
Juan Felix Gorostiaga (Areatza)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. **BEGITUK 24** urte eta ehundaka lagun.



94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
-
SABINO ARANA 38
IGORRE
-
TEL. 94 631 92 00

BEGITU

Ipini zure iragarkia Begitun
649 979 115
inigoirua@begitu.eus

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Bilatu dego jakitza

- Salmentan zein alokairuan
- Lurak (erakitzeko, landak, basotak...)
- Etebizi/zok (jauak, berriak, etxak...)
- Garajeak
- Lokal komertzialak
- Pabiloiak...
- Solazioak

Bilatu dego proiektu

- Erakitzeko proiektuak
- Abitzite-proiektuak
- Bainu diseinua
- CEE eta IIE-ak
- Hirigintza aholkularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Urdulandua, Agirre 25, bilboia - Agirre
Bilboia - 48901
Telefonoa: 94 631 31 31 - 435 94 31 31
E-maila: arratia@arratia.com
Webgunea: www.arratia.com

Kili-Kili
Amigo eta Postburoa
Lahendakortz Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 43 81

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3, 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel.: 94-673-70-87
Tel.: 609-79-40-54

Olaetxe
OPTICA OPTICA

- Graduazioak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gubitua
- Begiko tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ASESORIA
Gorbeialde
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza
Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnua: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

ZULAIBAR

ARRATIAKO LANBIDE IKASTEGIA

GOI
MAILAKO
HEZIKETA

ERDI
MAILAKO
HEZIKETA

OINARRIZKO
LANBIDE
HEZIKETA



AUTOMATIZAZIOKO
ETA ROBOTIKA
INDUSTRIALEKO GOI
MAILAKO GRADUA



MEDEKOTASUN EGOERAN
DAUDEN PERTSONEI ARRETA
EMATEKO ERDI MAILAKO
GRADUA



INSTALAZIO
ELEKTROTEKNIKOAK
ETA MEKANIKOAK



GIZARATERATZEKO
GOI MAILAKO
GRADUA



INSTALAZIO ELEKTRIKO
ETA AUTOMATIKOKO
ERDI MAILAKO GRADUA



ELEMENTU
METALIKOEN
FABRIKAZIOA



FABRIKAZIO
MEKANIKOKO
DISEINUKO GOI
MAILAKO GRADUA



MEKANIZAZIOKO
ERDI MAILAKO
GRADUA



FABRIKAZIO MEKANIKOKO
PRODUKZIOA
PROGRAMATZEKO GOI
MAILAKO GRADUA

GRADU BERRIA!

Ziurtagiri ofiziala

- Praktikak enpresetan
- 739 ordu
- Langabetuei eta lanean ari diren langileei zuzendua



MEKANIZAZIO, KONFORMAZIO
ETA MUNTAIA PROZESUAK
PROGRAMATZEA ETA
DISEINATZEA

Eskola garraioa aukeran!

AURREMATRIKULA: Maiatzak 4-22